# ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA

**ZERBITZUAK KONTRATATZEA**

ESLEITZEKO SISTEMA:

**PROZEDURA IREKIA, EZ DAGO ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENPE**

IZAPIDETZEA:

**OHIKOA**

KONTRATUAREN AZALPENA:

**ARARTEKOAREN MEZULARITZA-ZERBITZUA**

ESPEDIENTE ZK.:

**1/2019/PA**

**IZAPIDETZEKO MODUA:** ELEKTRONIKOKI SOILIK

AURKIBIDEA

## KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK


### I. AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

1. Kontratuaren xedea.
2. Kontratu-izaerako agiriak.
3. Oinarrizko lizitazio-aurrekontua.
4. Kontratuaren balio zenbatetsia.
5. Kontratuaren prezioa eta ordainketen aurreikuspena.
6. Kontratuaren indarraldia: kontratuaren iraupena edo kontratua egikaritzeko epea. Luzapena.
7. Non egikarituko den.
8. Publizitate-gastuak.
9. Bermeak.
10. Aseguruak.
11. Subrogazioa.
12. Gauzatzeko baldintza berezi batzuk.
13. Funtsezko kontratu-betebeharrak eta ingurumen, gizarte edo lan arloetako beste betebehar batzuk:
14. Zigorrak.
15. Azpikontratazioa.
16. Egikaritzapena egiaztatzea, onarpena eta bermealdia.
17. Kontratua aldatzea.
18. Kontratua suntsiarazteko arrazoi espezifikoak.
19. Kontratuaren xede den zerbitzuari buruzko klausula gehigarriak.

### II. ESLEIPEN-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

20. Administrazio-organoak eta erregistroak.
21. Esleipenaren izapidetzea eta prozedura.
22. Kaudimena, sailkapena, gaikuntza eta bitartekoak atxikitzea.
23. Esleipen-irizpideak.
24. Berdinketa hausteko irizpide espezifikoak.
25. Gutun-azal bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentuak.
26. Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak.
27. Prozedurari buruzko klausula gehigarriak.

## III. BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

28. Kontratua lagatzea. Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusten dira, baldintza orokorren 35.1.1 klausulan aurreikusten direnez bestelakoak.
29. Gizartearen, ingurumenaren eta prozeduran eta kontratuan sartutako beste politika publiko batzuen inguruko alderdien jarraipena egiteko koadroa.

# BALDINTZA OROKORRAK

## I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1. Kontratuaren xedea.
2. Kontratu-izaerako agiriak.
3. Kontratuaren araubide juridikoa.
4. Informazioa, honako gai hauek argitzeko: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa, ezgaitasunen baten duten pertsonak laneratzea eta datuen babesa.
5. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, kreditua egotea, aurretiko izapidetzea eta balio zenbatetsia.
6. Kontratuaren prezioa eta kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontua.
7. Prezioak berrikustea.
8. Kontratuaren indarraldia: Kontratua gauzatzeko epea edo kontratuaren iraupena. Luzapena.
   - 8.1. Traktu bakarreko kontratuak.
   - 8.2. Segidako traktuko kontratuak.
   - 8.3. Segidako traktuaren luzapena.
9. Bermeak.
10. Kontratatzailearen profila eta kontsultak.

## II. LIZITAZIOA

11. Parte hartzeko baldintzak.
12. Eskaintzak aurkeztea.
    - 12.1. Hizkuntza.
    - 12.2. Bitartekoak.
      - 12.2.1. Bitarteko elektronikoak.
    - 12.3. Konfidentzialtasuna.
    - 12.4. Agiriak egiaztatzea.
    - 12.5. Jakinarazpenak eta komunikazioak.
      - 12.5.1. Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.
      - 12.5.2. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

13. A gutun-azala: «Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak».
    13.1. Gutun-azalean sartu beharreko dokumentuak.
    13.2. Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan.
    13.3. Kontratazioaren Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) arau espezifikoak.

## III. GUTUN-AZALAK IREKI ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

14. Eskaintzak baztertzeko arrazoiak, eta argibideak eskatzea.
15. Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak irekitzea eta kalifikatzea.
16. Aplikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideen bidez ebalua daitekeen eskaintzaren zatia irekitzea eta ebaluatzea.
    16.1. Gutun-azalak jendaurrean irekitzea.
    16.2. Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.
    16.3. Salbuespena: aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ebaluatzea.
17. Formulen bidez automatikoki ebalua daitekeen eskaintzaren zatia irekitzea eta ebaluatzea.
    17.1. Gutun-azalak ireki aurreko jarduketak.
        17.1.1. Balio-judizioa eskatzen duten irizpideak erabiltzen dira.
        17.1.2. Ez dira erabiltzen balio-judizioa eskatzen duten irizpideak.
    17.2. Gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak irakurtzea.
18. Eskaintzak ebaluatzea.
19. Berdinketa hausteko irizpideak.

## IV. KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA

20. Esleipen-proposamena.
21. Esleitu aurreko dokumentazioa aurkeztea.
22. Kontratua esleitzea eta esleipena jakinaraztea.
23. Kontratua formalizatzea.

## V. KONTRATUA GAUZATZEA

24. Kontratuaren arduraduna.
25. Zerbitzuak egikaritzea.
    25.1. Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.
    25.2. Lan-programa.
    25.3. Baimenak.
    25.4. Aseguruak.
    25.5. Lankidetza

25.6. Kontratistaren erantzukizuna.
25.7. Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan eman beharreko kalte-ordaina.
26. Egikaritzeko erabilitako bitartekoak.
26.1. Bitartekoei atxikitzeko konpromisoa.
26.2. Langileei lotutako arau espezifikoak.
26.3. Lan-baldintzei buruzko informazioa.
26.4. Kontratua non egikarituko den.
26.5. Ukigabetasunaren araua.
26.6. Langileen subrogazioa.
27. Betebeharrak lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunarenean.
28. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.
28.1. Hizkuntza-baldintzak.
28.2. Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:
28.3. Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea.
29. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen tratamendua.
29.1. Konfidentzialtasuna.
29.2. Datu pertsonalen tratamendua.
30. Egindako lanen jabetza eta jabetza industriala eta intelektuala.
30.1. Lanen jabetza.
30.2. Industria-jabetza eta jabetza intelektuala.
31. Zigorrak.
31.1. Arrazoiak eta zenbatekoak.
31.2. Prozedura.
32. Prezioa ordaintzea.
32.1. Emandako eta egikaritutako zerbitzuen ziurtapena.
32.2. Adostasuna eta fakturaren erregistroa.
32.3. Ordainketa.
33. Kontratua aldatzea
33.1. Baldintzak.
33.2. Prozedura.
33.3. Ondorioak.
34. Azpikontratatza.
34.1. Kontratuaren arduradunari jakinaraztea
34.2. Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.
35. Kontratua lagatzea eta ABEE osatzen duten kideak aldatzea.

VI. KONTRATUA AZKENTZEA

36. Betetzea: Entregatzea, onarpena eta likidatzea.
36.1. Entregatzea eta denak behar bezala funtzionatzen duen egiaztatzea.
36.2. Akatsak zuzentzea.
36.3. Onarpena.
36.4. Likidazioa.

37. Bermealdia eta bermea itzultzea.
37.1. Enpresa kontratistaren betebeharrak.
37.2. Bermea itzultzea.
38. Ebazpena.

## VII. GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA

39. Gorabeherak
39.1. Kontratazio-organoaren prerrogatibak.
39.2. Prozedura.
40. Egintzak berrikusteko araubidea.

## ERANSKINAK

I. ERANSKINA Europako Kontratazio Agiri Bakarreko formulario normalizatua (EKAB).
II. ERANSKINA Eskaintza ekonomikoa.
III. ERANSKINA Baliabideak jartzeko eta kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa.
IV. ERANSKINA Eskaintza zer sortatara aurkezten den.
V. ERANSKINA Bestelako hobekuntzen proposamena, eskainitako prezioa igo gabe.
VI. ERANSKINA Enpresak emandako informazioak isilpeko izendatzeko eredua.
VII. ERANSKINA Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak eskura izatea.
VIII. ERANSKINA Enpresen aldi baterako batasuna sortzeko konpromiso eredua.
IX. ERANSKINA Enpresak kontratuaren helburu den jarduera egiten duten langileekiko bere gain hartzen dituen konpromisoen aitorpena.
X. ERANSKINA Sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez izatea.
XI. ERANSKINA Azpikontratazioa komunikatzea.

LABURPEN-TAULA

## KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

## I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

### 1.- KONTRATUAREN XEDEA

1.1. **Definizioa:** ARARTEKO ERAKUNDEAREN MEZULARITZA-ZERBITZUA.

Ararteko erakundeak Gasteizen kokatutako egoitza nagusiaren eta Bilboko zein Donostiako lurralde-ordezkaritzen artean egin behar dituen barne-bidalketetan, gutun-azalak eta paketeak jaso, garraiatu eta entregatzea hartuko du barne Arartekoaren mezularitza eta paketeen garraio zerbitzuak. Barne-posta esan ohi zaio zerbitzu horri.

Halaber, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan aurkeztutako kontsultei eta kexei lotutako ebazpenak jaso, garraiatu eta entregatzea hartuko du barne zerbitzuak.

Arartekoak, unean-unean, estatu mailako bidalketak egin ahal izango ditu, bere jarduera egiten ari dela, bai eta beste autonomia-erkidego batzuetako defentsa-bulegoekiko nahiz Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko harremanetan ere.

1.2. **Sortakako banaketa:** EZ. Erakunde osorako zerbitzu bakarra da. Kontratuaren xedean jasotako askotariko zerbitzuak modu independentean egiteak zailago bihurtuko luke, ikuspegi teknikotik, kontratua behar bezala egikaritzea.

1.3. **CPV kodea:** [Europako Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 (EE) Erregelamendua, kontratu publikoen hiztegi erkidea (CPV) onartu zuen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena]: 60160000-7.

1.4. **Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk:** EZ.

### 2.- KONTRATU IZAERA DUTEN AGIRIAK

Baldintza orokorren 2. klausulan ageri direnak:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiria (AKZA).
b) Baldintza tekniko zehatzen agiria (BTZA).
c) Kontratua formalizatzeko agiria.

## 3.- OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA

### 3.1. Aleko gehieneko prezioa:

| a.- HIRI-ZERBITZUA | (BEZa kanpo) | (BEZa barne) |
|---|---|---|
| Gehienez ere 10 kg | 7,50 euro | 9,08 euro |
| Gehienez ere 5 kg (bizikletaz egindako banaketa-zerbitzua) | 8 euro | 9,68 euro |
| **b.- EAE-KO ZUBI-ZERBITZUA EDO MINUS HAMAHIRU ZERBITZUA. Bulegoen arteko posta-zerbitzua barne** | **(BEZa kanpo)** | **(BEZa barne)** |
| Gehienez ere 10 kg | 11 euro | 13,31 euro |
| Aparteko kg bakoitza (euro gehitutako kilo bakoitzeko) | 0,65 euro kiloko | 0,79 euro kiloko |
| **c.- ESTATUKO ZUBI-ZERBITZUA EDO MINUS HAMAR ZERBITZUA** | **(BEZa kanpo)** | **(BEZa barne)** |
| Gehienez ere 10 kg | 12 euro | 14,52 euro |
| **d.- ZERBITZU GEHIGARRIAK** | **(BEZa kanpo)** | **(BEZa barne)** |
| Berehalako kilometroa | 0,65 euro kilometroko | 0,79 euro kilometroko |
| Zain egondako denbora (minutuko) | 0,64 euro minutuko | 0,77 euro minutuko |

Gastuaren aurrekontu adierazgarria, gehienez ere: 19.834,71 euro + BEZa (4.165,29 euro); guztirako zenbatekoa 24.000 euro, urteko kuota hauetan banatuta hala badagokio:

- 2019. urtea: 550,96 euro + BEZa (115,70 euro). Guztira, 666,67 euro.
- 2020. urtea: 6.611,57 euro + BEZa (1.388,43 euro). Guztira, 8.000 euro.
- 2021. urtea: 6.611,57 euro + BEZa (1.388,43 euro). Guztira, 8.000 euro.
- 2022. urtea: 6.060,61 euro + BEZa (1.272,73 euro). Guztira, 7.333,33 euro.

**3.2. Egotzitako aurrekontu-partida:** 2340200 Telegramak, zigiluak, egiaztagiriak, bidalketak eta abar.

**3.3. Aurretiko izapidetzea:** EZ. Kontratuaren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egoteko etete-baldintzaren mende dago kontratuaren esleipena.

**3.4. Gastua kofinantzatuta dago:** EZ.

## 4. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

**4.1. Kontratuaren balio zenbatetsia:** 33.057,85 euro (BEZa kanpo).

### 4.2. Kalkulatzeko metodoa:

| | |
|---|---|
| Lizitazioaren aurrekontua (BEZa kanpo) | 19.834,71 euro |
| Luzapena (BEZa kanpo) | 13.223,14 euro |
| BALIO ZENBATETSIA GUZTIRA | 33.057,85 euro |

## 5. KONTRATUAREN PREZIOA ETA ORDAINKETAREN AURREIKUSPENA

**5.1. Prezioa zehazteko sistema:** Aleko gehieneko prezioa.

**5.2. Prezioa ordaintzeko era:**

Ordainketa osoa: EZ.
Zatikako ordainketa: BAI.

- Hilabetea igarota ordainduko da emandako zerbitzua, eta hilabete bakoitzean egindako bidalketak ordainduko dira, emandako zerbitzuak zehaztuta. Aldez aurretik, faktura aurkeztuko da, behar bezala banakatuta.

- Hileko fakturan berariaz adieraziko da zer-nolako zerbitzuak eman diren, eta zer egunetan.

**5.3. Prestalanak daude:** EZ.

**5.4. Prezioak berraztertzea:** EZ.

**5.5. Epeei edo errendimenduei lotutako zenbait helburu betetzearen edo urratzearen arabera prezioa aldatzeari buruzko klausulak:** EZ.

## 6. KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA. LUZAPENA.

**6.1. Zerbitzua egiteko-epea:** 3 urte

**6.2. Zatikako epeak edo egikaritzak:** EZ.

**6.3. Hasiera-data:** parte hartzen duten alderdiek kontratua sinatu eta biharamunean.

**6.4. Kontratua luzatzea:** BAI.

- **Zenbat aldiz luza daiteke:** 2.
- **Luzapenaren iraupena:** urtebete.

## 7. NON EGIKARITUKO DEN.

Zerbitzua barne-postaren bidez emango da, Arartekoaren Gasteizko egoitza nagusiaren eta Bilboko (San Bizente 8, Albia eraikina, 11. solairua) zein Donostiako (Arrasate 19, 1. solairua) lurralde-ordezkaritzen artean.

Horrez gain, herritarrek aurkeztutako kontsultei eta kexei lotutako ebazpenak Arartekoaren egoitza nagusian (Prado kalea 9, Gasteiz) jasoko dira —bai eta, batzuetan, Bilboko nahiz Donostiako lurralde-ordezkaritzetan ere—, eta, ondoren, garraiatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan entregatuko dira.

Arartekoak, unean-unean, bere jarduera egiten ari dela, bai eta beste autonomia-erkidego batzuetako defentsa-bulegoekiko nahiz Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko harremanetan ere, egiten dituen estatu mailako bidalketetarako, bidali beharrekoa Arartekoaren Gasteizko egoitza nagusian jasoko da (batzuetan, Arartekoaren Bilboko nahiz Donostiako lurralde-ordezkaritzetan jaso ahal izango dira).

## 8. PUBLIZITATE-GASTUAK

Ez da publizitate-gasturik aurreikusten. Kontratazio Publikoa Euskadin plataformaren bitartez argitaratuko da iragarkia.

## 9. BERMEAK

**9.1. Behin-behineko bermea:** EZ.

**9.2. Behin betiko bermea:** BAI. Bermea esleipenaren zenbatekoaren %5 izango da, BEZik gabe.

**9.3.** Bermea Arartekoaren alde eratuko da.

## 10. ASEGURUAK

Enpresa esleipenduna derrigorrezko aseguruak izan beharko ditu, eta, halakorik badago, agirian dagokion klausulan ezarritakoa.

## 11. SUBROGAZIOA

Ez da aurreikusten langileak subrogatuko direnik.

## 12. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZI BATZUK

**12.1. Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:**

**12.1.1.** Baldintza orokorren 28.2. klausulan bildutakoak, apirilaren 7ko 3/2016 Legearen (zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa) 7. artikuluan xedatutakoa betez.

**12.2. Ingurumenari buruzkoak:** BAI. Preskripzio tekniko partikularren pleguko 8. klausulan jasotakoak.

**12.3. Linguistikoak**:

**12.3.1.** Kontratu honi bi hizkuntzen ofizialtasunaren araubidea ezartzen zaio. Araubide hori Euskal Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarrita dago, eta Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko Oinarrizko Legearen eta hori garatzeko araudien bitartez araututa.

Baldin eta baldintza teknikoen agirian adierazten ez bada kontratuaren helburuaren ezaugarriak direla-eta zerbitzua bi hizkuntzetako batean bakarrik egin daitekeela, kontratuari lotutako betekizuntzat joko da bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, eta baldintza hori ez betetzeak kontratuaren beste edozein baldintza ez betetzeak dakartzan ondorio berberak eragingo ditu.

Kontratua gauzatzean, bete egin beharko dira agiriak dagokion klausulan kontratua gauzatzeko xedatzen dituen hizkuntza-baldintzak.

**12.4. Beste batzuk**:

**12.4.1.** Ez da erabiliko hizkera sexistarik, emakumeak diskriminatzen dituen irudirik, estereotipo sexistarik, eta presentzia orekatua, aniztasuna eta erantzukizun partekatua sustatuko dira, berdintasun-printzipioen bidez.

Egikaritzeko baldintza berezi guztiak eskatu ahal izango zaizkie bai enpresa kontratistari, bai azpikontratistari, halakorik balego.

## 13. KONTRATU-BETEBEHARRAK

**13.1. Funtsezko kontratu-betebeharrak**

**13.1.1.** Kontratua gauzatzen ari den bitartean, enpresa esleipendunak zuzen bete beharko ditu agiriaren dagozkion klausuletan gai hauetaz

ezarritako egikaritza-baldintza zehatz bereziak: gizarteratzea eta laneratzea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, enpleguaren kalitatea eta oinarrizko lan eskubideak, eta laneko segurtasuna eta osasuna.

**13.1.2.** Enpresa esleipendunak eta, azpikontrataziorik baldin badago, azpikontratatzaileak honako arlo hauetan indarrean dauden legezko, arauzko eta ohiko xedapen guztiak bete beharko dituzte: lana, gizarte segurantza eta laneko segurtasuna eta osasuna. Bereziki, enpresa esleipendunaren lurraldeko Sektoreko Hitzarmen Kolektiboan agertzen diren lan-baldintzak ezarri beharko ditu; edo, halakorik gertatzen bada, geroan berraztertzen diren hitzarmen kolektiboetako baldintzak, eta enpresa bera arduratuko da, ez beste inor, lan-istripuei dagokien guztiaz.

Enpresa esleipendunak hori ez betetzeak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko Arartekoari.

**13.1.3.** Kontratuaren egikaritzapenari atxikitzea III. ERANSKINean (“Baliabideak atxikitzeko eta egikaritzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa”) ageri den erantzukizunpeko adierazpenaren taulan azaldutako bitartekoak, bai eta giza baliabideak edo baliabide materialak ere, baldin eta esleipen-prozeduran, kaudimen teknikoa edo profesionala betetze aldera, egiaztatu bada bitarteko horien jabetza edo eskuragarritasuna.

**13.1.4.** Kontratuaren klausula espezifikoen 15. Klausulan adierazitako azpikontrataziorako baldintzak, baldintza orokorren 34.1. klausularen arabera azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea eta SPKLren 215.2.c) artikuluaren arabera larrialdi- edo premia-egoera baldintzatzen duen inguruabarrak egiaztatzea.

**13.1.5.** Funtsezko kontratu-betebeharren artean edozein ez betetzea arau-hauste larria da SPKLren 71.2.c) artikuluaren ondorioetarako.

## 14. ZIGORRAK

**14.1. Beste zehapen osagarri batzuk ezarri dira , baldintza orokorren 31.1. klausulan xedatutakoez gain:** EZ.

**14.2.- SPKLren 193.3. eta 193.4. artikuluetan xedatuta ez dauden beste zehapen-zenbateko batzuk ezarri dira, epeak betetzean berandutzeagatik:** EZ.

## 15. AZPIKONTRATAZIOA

**15.1. Azpikontratatzeko aukerari muga hauek ezartzen zaizkio:** BAI.

**15.1.1.** Esleipendunak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du kontratuaren zati bat gauzatzea, betiere azpikontratatutako zatien zenbateko osoak kontratu-esleipenaren 100eko 60 gainditzen ez badu.

**15.1.2.** Kontratu nagusiaren xede diren zerbitzuen zati bat egikaritzeko azpikontratazioa egite aldera, kontratistak kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, beranduenez azpikontratuaren egikaritzea hasi behar den data baino 15 egun natural lehenago; aldi berean, baldintza orokorren pleguaren 13.3.2.1. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

**15.1.3.** Lizitatzaileak eskaintzan eta Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) II. zatian, D sailean adierazi beharko du kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen.

**15.2. Lizitatzaileek honako informazio edo dokumentazio hau aurkeztu behar dute:**

a) Zerbitzuaren zein zati azpikontratatu nahi duten. Baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaltzen diren datuen berri eman behar dute.

a) Azpikontratatu nahi dituzten azpikontratista guztien EKAB (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta).

## 16. EGIKARITZAPENA EGIAZTATZEA, ONARPENA ETA BERMEALDIA

**16.1. Zerbitzua behar bezala eman dela egiaztatzeko modua:** Kontratuaren arduradunaren egiaztapen-txostena.

**16.2. Onartzeko epea:** Lanak amaitutakoan eta Arartekoak faktura onartutakoan egingo dira ordainketak.

**16.3. Obrak partzialki jaso daitezke:** EZ.

**16.4. Berme-aldia:** EZ dago bermealdirik. SPKLren 210. artikuluarekin bat, kontratuaren izaeragatik beragatik (segidako traktua), ez da beharrezkoa bermealdia ezartzea. Izan ere, hileko fakturarekiko adostasuna agertu arte ez da joko kontratistak betebehar nagusia behar bezala bete duela.

## 17. KONTRATUA ALDATZEA.

**Kontratua aldatzeko aukera:** EZ.

18. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

**Beste suntsiarazpen-arrazoi batzuk ezartzen dira, baldintza orokorren 38. klausulan xedatutakoez gain:** EZ.

19. KONTRATUAREN XEDE DEN ZERBITZUARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

**19.1. Kontratistak lan-egitaraua aurkeztu behar du, baldintza orokorren 25.2 klausulak ezartzen duenari jarraituz:** BAI.

**19.2. Baldintza orokorren 29.2.d) klausulako 2) apartatuan ezartzen diren datu pertsonalen tratamendurako neurri berezi gehigarriak ezartzen dira:** BAI. Nolanahi ere, honako hauetan xedatutakoari erreparatuko zaio: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan —pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) indargabetzen baitu— eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa).

**19.3. SPKLren 75.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerbitzuaren zati batzuk edo lan jakin batzuk kontratistak berak egin ditzala eskatzen da:** BAI. Esleipendunak egin beharko ditu lan guztiak, horien izaera dela tarteko.

## II. ESLEITZEKO PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

20. ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK:

**20.1. Botere esleitzailea:** Arartekoa.

**20.2. Organoen identifikazioa:**

**20.2.1. Kontratua esleituko duen organoa:** Arartekoa.

**20.2.2. Espedientea izapidetzen duen Zuzendaritza edo Zerbitzua:** Aurrekontu eta Ekonomia Kudeaketako eta Administrazio, Langile eta Mantentze-lanetako Zuzendaritza.

**20.2.3. Espediente-zenbakia:** 1/2019/PA.

**20.2.4. Kontratuaren arduraduna:** Aurrekontu eta Ekonomia Kudeaketako eta Administrazio, Langile eta Mantentze-lanetako zuzendaria.

**20.2.5. Kontabilitate-arloko organoa:** Aurrekontuaren, ekonomiaren eta langileen kudeaketa. Faktura elektronikoak jasotzea aplikazio honen bitartez: https://efakturak.ararteko.eus/efakturak/.

Arartekoaren izenean egindako faktura elektronikoetan, DIR3 kodeak adierazi beharko dira:

- Kontularitza bulegoa: I00000607 Ararteko
- Organo kudeatzailea: I00000607 Ararteko
- Izapideak egingo dituen unitatea: I00000607 Ararteko

**20.3. Kontratazio zentrala.** Kontratua esleitzen duen organoak beste entitate batentzat egiten du lan: EZ.

**20.4. Kontratazio Mahaiko kideak**:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 79. zk., 2017ko apirilaren 26koa. Edukia esteka honetan dago eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2017/04/1702083a.shtml

**20.5. Aditu-batzordea/erakunde tekniko espezializatua: EZ.**

**20.6. Alderdi tekniko eta juridikoei buruzko kontsultak artatzeko harremanetarako datuak:**

- Posta elektronikoa: contratacion@ararteko.eus
- Telefonoa: 945 13 51 18

Kontsultak mezu elektronikoz bidaliz gero, espediente-zenbakia adieraziko da “gaia” eremuan, modu honetan: **1/2019/PA espedientea.**

Interesdunek egiten dituzten kontsulten erantzunak Kontratazio Mahaiaren ustez lagungarri izan badaitezke gainerako enpresa lizitatzaileentzat beren eskaintza egiteko, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, kontsulta horiek jaso eta horiei erantzun ahala.

**20.7. Erregistroak:**

**20.7.1. Eskaintzak aurkezteko erregistroa:** Kontratazio Elektronikoko Erregistro Telematikoa (ikusi baldintza orokorren 12.2.1. klausula)

**20.7.2. Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa:**

- Ziurtagiriak: Arartekoaren Erregistro Orokorra Helbidea: Prado 9, Gasteiz
- Fakturak: https://efakturak.ararteko.eus/efakturak/, kontratuko klausula espezifikoen 20.2.5. klausulan adierazitakoari jarraituz.

## 21. IZAPIDETZEA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA

**21.1. Arau harmonizatupeko kontratua:** EZ.

**21.2. Izapidetzea:** ARRUNTA.

**21.3. Prozedura:** IREKIA.

**21.4. Sortaka banatzeari buruzko informazioa:** Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 1.2. klausula.

**21.5. Izapidetzeko modua:** Elektronikoki.

**21.6. Enkante elektronikoa:** EZ.

**21.7. Gizarteratzeko Enplegu Zentro Berezietarako eta gizarteratze-enpresetarako erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen barruan dagoena:** EZ.

**21.8. Gizarte, kultur edo osasun arloko zerbitzuen kontratua izateagatik erakunde jakin batzuentzat erreserbatutako kontratua, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera:** EZ.

## 22. KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BITARTEKOAK ATXIKITZEA.

**22.1. Kaudimeneko gutxieneko baldintza batzuk edukitzeko betebeharra:** BAI. Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula.

**22.2. Kaudimena:** Eragile ekonomikoek honako kaudimen hau eduki behar dute, salbu eta kaudimen horren ordez kontratuko klausula espezifikoen 22.3. klausulan adierazitako sailkapena aukeratzen badute.

- Ekonomiko eta finantzarioa.

  Egiaztatzeko, amaitutako azken 3 urteetako negozioen urteko zifra erabiliko da, edo, bestela, kontratuaren xede den arloko negozioen urteko zifra, eta 49.000 eurokoa edo handiago izan beharko du.

- Teknikoa edo profesionala.

  Baldintza orokorren 12.4 klausulan xedatuta dagoenari kalterik egin gabe, kaudimenaren betekizun horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak soilik egiaztatu beharko ditu, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1. klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztuz.

**22.3. Sailkapena:** Ez da sailkapenik eskatuko, baina bai enpresek kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa dutela egiaztatzea 22.2. klausulan adierazitako moduan. Nolanahi ere, mota bereko kontratuak sinatzeko sailkapena duten enpresak salbuetsita egongo dira kaudimen hori dutela egiaztatzetik.

Enpresa lizitatzaileak berdin-berdin egiaztatu ahal izango du kaudimena duela, honako talde edo azpitalde honetan sailkatuta:

- Taldea: R Azpitaldea: 9 Kategoria: A

EKABen II. zatiko A atalean adierazi beharko da sailkapena.

**22.4. Enpresa- edo lanbide-gaikuntza:** Jarduera edo kontratua erregulatzen duen araudiak exijitutakoak.

**22.5. Pertsona juridikoek zerbitzua emateko ardura duten langileen izenak eta lanbide-prestakuntza jakinarazi beharko dituzte:** BAI.

**22.6. Bitartekoak nahitaez atxikitzea:** EZ.

Bitarteko horiek benetan eskura daudela eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak soilik egiaztatu beharko du, eta, horretarako, kontratuaren klausula espezifikoen 26.2 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

## 23. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.

**23.1. Esleipen-irizpide bakarra dago:** EZ.

**23.2. Esleipen-irizpide ugari dago:** BAI.

**23.2.1. Balio-judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak:**

- "Hiri-zerbitzua" ematea, ibilgailu hibridoak eta elektrikoak atxikitzea, eko-gidatzearen inguruko prestakuntza duten langileak: 60 puntu.

**23.2.2. Formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak:**

- Prezioa. Haztapena: 40 puntu.

Eskaintza ekonomikoa automatikoki ebaluatuko da, formula matematikoa aplikatuta. Eskaintzarik merkeenari gehieneko puntuazioa emango zaio; gainerako eskaintzak modu alderantziz proportzionalean baloratuko dira, honako formula matematiko hau aplikatuta:

Puntuazioa = (eskaintza merkeenaren zenbatekoa/eskaintza bakoitzaren zenbatekoa) x zerbitzuaren gehieneko puntuazioa.

### 23.3. Eskaintza baxuegiak

Eskaintza bat baxuegitzat joko da irizpide hauek betetzen dituenean:

**23.3.1. Prezioari dagokionez:** BAI

**Eskaintza baxuegia dela antzemateko parametro objektiboak**: Eskaintza ekonomikoa lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino %25 baxuagoa izatea.

**23.3.2 Gainontzeko irizpideei dagokienez:** BAI

**Eskaintza baxuegia dela antzemateko parametro objektiboak**: Prezioa alde batera utzita, gainontzeko esleipen-irizpideetan dagokion puntuazioa agirian horientzat ezarri den puntuazio osoaren %90etik gorakoa izatea.

## 24. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK.

**24.1.** Hona hemen esleituko diren sorten lehentasun-ordena:

- **Enpresa lizitatzaile bakarra dagoen sortak**

  Sorta enpresa horri esleituko zaio.

- **Enpresa-lehia dagoen sortak:**

  B gutun-azalean (“FORMULEN BITARTEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA”) puntu gehien eskuratu dituen enpresa lizitatzailea izango da esleipenduna.

  Enpresa batek baino gehiagok atal horretan puntuazio bera eskuratzen badute, C gutun-azalean (“APLIKATZEKO BALIO JUDIZIO BAT EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK”) puntu gehien eskuratu dituen enpresaren alde hautsiko da berdinketa hausteko.

## 25. GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK.

Lizitazio-prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak jarraian adieraziko ditugun fitxategi elektronikoen edo gutunen barruan aurkeztuko dira.

### 25.1. A GUTUN-AZALA: "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK".

Gutun-azal honetan, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- **I. ERANSKINA**: EKAB.
- **VI. ERANSKINA**: Eragile ekonomikoak emandako datuak konfidentzial izendatzea.
- **III. ERANSKINA**: Baliabideak atxikitzeko eta egikaritzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa.
- **VIII. ERANSKINA:** Enpresen aldi baterako batasuna sortzeko konpromiso-eredua.
- **IX. ERANSKINA:** Kontratuaren xede den jarduera egingo duten pertsonei hartutako konpromisoen adierazpena.

### 25.2. B GUTUN-AZALA: "FORMULEN BITARTEZ AUTOMATIKOKI EBALUATU AHAL DEN ESKAINTZA".

Gutun-azal honetan honako dokumentu hau aurkeztu behar da:

- **II. ERANSKIN**ean ageri den ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa.

### 25.3. C GUTUN-AZALA: "BALIO-JUDIZIO BAT EGINEZ EBALUATU BEHARREKO ESKAINTZA".

**Lizitatzaileak gutun-azal honetan aurkeztuko du 23.2.1. klausulan —aplikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideei buruzkoa— jasotako alderdiak garatuko dituen proposamen teknikoa.** Ikusi baldintza teknikoen pleguaren III. eranskina.

**25.4. Aldaerak onartzen dira:** EZ.

## 26. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK.

Baldintza orokorren 22.1. klausulan azaldutako gainerako dokumentuekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira, hala badagokio:

**26.1.** Kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausulan jasotako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentuak: BAI. Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

    - Lizitatzailearen edo izangaiaren negozioaren urteko bolumena egiaztatuko da onetsitako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontuen bitartez, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako urteko kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute beren negozioaren urteko bolumen.

    - Entitate lizitatzaileak ez badu bere kontuak ezein erregistro ofizialetan inskribatzeko betebeharrik, dagokion foru-ogasunean edo zerga-agentzian aurkeztutako eredu ofizialaren bitartez egiaztatu ahal izango du, betiere negozioaren urteko bolumena ageri bada han, besteak beste BEZaren edo sozietateen gaineko zergaren urteko aitorpenen bidez.

- Kaudimen tekniko edo profesionala:

    - Erakunde publiko batek egindako ongi egikaritu izanaren ziurtagirien bitartez, edo, entitatea pribatua balitz, lanen xedearen, dataren, zenbatekoaren, hartzailearen berri ematen duen eta lana behar bezala egikaritu zela dioen adierazpenaren bidez.

**26.2.** Kontratuaren klausula espezifikoen 22.6. klausulan eskatutako baliabide materialak eta giza baliabideak eskuragarri daudela egiaztatzeko dokumentuak.

## 27. PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK.

**27.1. Pleguei eta dokumentu osagarriei buruzko informazio gehigarria**:

**27.1.1. Eskaera egiteko azken eguna:** Eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 7 egun lehenago.

**27.1.2. Halakoak eskuratzeko azken eguna:** Eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 4 egun lehenago.

**27.1.3. Pleguei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideen izaera loteslea**: BAI.

**27.2. Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusi da, kontratua egiteari uko egiten bazaio eta botere esleitzaileak prozeduran atzera egiten badu**: EZ.

**27.3. Kontratua esleitzeko gehieneko epea SPKLren 158.2. artikuluan ezarritakoaz bestelakoa da**: EZ.

**27.4. Formalizazioaren aurretik aurkeztu beharreko beste dokumentu batzuk:** EZ

## III. BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

### 28. KONTRATUA LAGATZEA.

**28.1. Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusi dira, baldintza orokorren 35.1.1. klausulan xedatu direnez bestelakoak:** EZ

28.2. Gizartearen, ingurumenaren eta prozeduran eta kontratuan sartutako beste politika publiko batzuen inguruko alderdien jarraipena egiteko koadroa.

| Alderdiak: | SOZIALAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK | | | | INGURUMENARI BURUZKOAK | HIZKUNTZARI BURUZKOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | BEREZIKI | | | BESTE BATZUK | | |
| | Laneratzea | Emakumeen eta gizonen | Laneko arriskuen | | | |
| Kontratuaren xedea | | | | | | |
| Kaudimenari buruzko | | | | | | |
| Zehaztapen teknikoak | | | | | | |
| Esleipen-irizpideak | | | | | X | |
| Egikaritzeko baldintza bereziak | | X | X | | X | X |

## BALDINTZA OROKORRAK

## I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

### 1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea kontratuaren klausula espezifikoen 1. klausulan adierazita dago, eta preskripzio tekniko partikularren pleguan definituta.

Xedea sortatan zatiturik badago, kontratuaren klausula espezifikoen 1.2. klausulan egongo da adierazita sorta bakoitzaren xedea, eta preskripzio tekniko partikularren pleguan definituta.

Kontratu Publikoen Hiztegi Erkidea (CPV) kontratuaren klausula espezifikoen 1.3. klausulan azaldutako zerbitzuan kokatzen da.

Segidako traktuko kontratua bada eta ez bada zehatz definitu zenbat prestazio-unitatek osatzen duten xedea, botere esleitzaileak eskatutako prestazio-unitateak exekutatu beharko ditu kontratistak.

### 2. KONTRATU-IZAERAKO DOKUMENTUAK.

Hona hemen kontratu-izaerako dokumentuak:

a) Administrazio-klausula zehatzen agiria (AKZA).
b) Baldintza tekniko zehatzen agiria (BTZA).
c) Kontratua formalizatzeko agiria.
d) Lan-egitaraua, kontratuaren klausula espezifikoen 19.1. klausulan hala azaltzen denean.

### 3. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

**3.1.** Kontratua administratiboa da eta ondoren azalduko diren arau eta agirien araberakoa izan beharko da.

Lehenengo-lehenengo, hauen araberakoa:

a) Administrazio-klausula zehatzen agirian jasotako klausulak, karatulako zehaztapenen arabera (karatula agiriaren osagaia da).

b) Baldintza tekniko zehatzen agiriko klausulak.

c) 2014/24/UE Zuzentaraua, otsailaren 26koa, 2014ko otsailaren 26ko Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa. Horren bidez, 2004/18/CE Zuzentaraua indargabetu zen.

d) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).

e) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO) onartu zuena, SPKLTBn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

f) Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketen izapidetze telematikoari buruzkoa.

g) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

h) Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.

Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

**3.2.** Aldeek berariaz bete beharko dute kontratu-izaerako dokumentuetan ezarrita dagoena.

Agiri horietan zer ezarri den ez jakiteak ez du kontratista salbuesten horiek bete behar izatetik. Halaber, eskaintza aurkezten duen enpresa lizitatzaileak salbuespenik eta erresalburik gabe onartzen ditu klausula guztiak.

## 4. GAI HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN-BALDINTZAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

**4.1.** Emakume eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutua Organismo Autonomoa.

**4.2.** Fiskalitatea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Eridegoko Foru Ogasunak eta Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzia.

**4.3.** Ingurumena babestea: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean eta IHOBE Sozietate Publikoan.

**4.4.** Enplegua babestea, lan-baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa: Enplegu eta Gizarte Politien Sailaren Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.

**4.5.** Datuen babesa: Euskadiko Datuen Babeserako Agentzia eta Datuen Babeserako Espainiar Agentzia.

## 5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA.

**5.1.** Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3.1. klausulan ageri da, eta urteka eta sortaka banatuta dago, hala badagokio, klausula horretan ezarritakoaren arabera.

**5.2.** Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2. klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan, behar adinako kreditua dago kontratuak eragindako betebeharrei aurre egiteko.

**5.3.** Espedienteak aurretiko izapidetzea behar badu, kontratuaren klausula espezifikoen 3.3. klausularen arabera, kontratua esleitzeko kreditu egoki eta nahikoa egon behar da dagokion ekitaldi ekonomikoan.

**5.4.** Balio zenbatetsia kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan ageri da.

## 6. KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUA MUGATZEN DUEN GEHIENEKO AURREKONTUA.

**6.1. Kontratuaren prezioa oroharreko prezio baten araberakoa denean**: oroharreko prezioa duten kontratuetan, esleipendunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa, baina inola ere ezin izango da izan kontratuaren klausula espezifikoen 3.1. klausulan ageri den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) baino handiagoa.

**6.2. Kontratuaren prezioa unitate-prezioen araberakoa denean**: prestazioan eskainiko diren osagaiei, egikaritzapen-unitateei edo denbora-unitateei dagozkien unitate-prezioaren araberako kontratuetan, honi jarraituko zaio:

a) Argi zehaztu bada zenbat unitatek osatzen duten xedea, hauxe izango da prezioa: esleipendunak eskainitako unitate-prezioa bider unitate kopurua.

b) Ez bada zehatz definitu zenbat unitatek osatzen duten xedea:

1) Esleipendunak eskainitakoa izango da unitate bakoitzaren prezioa.

2) Kontratuaren mugatzen duen gehieneko aurrekontua ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina izan daiteke, edo, baldin eta esleipendunak ez badu unitateko lizitazio-prezioen murrizketarik eskaini, kontratazio-organoak zehaztuko duen proportzioan murriztu ahal izango da.

Kasu horretan, aurrekontuaren benetako gastua botere esleitzailearen egiazko premien araberakoa izango da, ez baitago behartuta unitate-kopuru zehatz bat eskatzera, ez eta aurrekontu osoa gastatzera ere.

**6.3.** Prezioa zehazteko bi sistemak (oroharreko prezioa nahiz unitate-prezioa) erabiltzen badira prestazioaren zati desberdinetarako, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1. klausulan eta baldintza orokorren 6.1. eta 6.2. klausuletan xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

**6.4.** Kontratuaren prezioa edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontua esleipenaren ebazpenean zehaztuko da, BEZa partida independente gisa aipatuta, eta, behar izanez gero, urte anitzeko banaketa ere bai.

**6.5.** Kontratuaren prezioan edo prezioetan, aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak sartuta daude, bai eta kontratuaren baldintzak betetzeak dakarren beste edozein gastu ere.

## 7. PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioen berrikuspenari dagokionean, kontratuaren klausula espezifikoen 5.4. puntuan xedatutakoari jarraituko zaio, aintzat hartuta ezin dela prezioaren berrikuspena egin prezioen indize orokorretan oinarrituz edo horiek biltzen dituen formulan oinarrituz, eta prezioak kostuen bilakaera adierazten duen indize zehatz batean oinarrituz berrikustea bakarrik dela onargarria (martxoaren 30eko 2/2015 Legea, espainiar ekonomia desindexatzeari buruzkoa, eta otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretua).

## 8. KONTRATUAREN INDARRALDIA.

**8.1. Traktu bakarreko kontratuak:** kontratua egikaritzeko epea hau da:

a) Eskaintzek ezin badute proposatu epe osoa edo epe partzialak laburtzea: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1. klausulan adierazitakoa.

b) Eskaintzek epe osoa edo epe partzialak laburtzea proposatu badezakete: esleipendunak eskaini dituenak.

Epe horiek luzatu ahalko dira, SPKLren 195.2. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera soil-soilik.

**8.2. Segidako traktuko kontratuak:** kontratuaren klausula espezifikoen 6.1. eta 6.3. klausuletan daude adierazita, hurrenez hurren, kontratuaren iraupena eta epe partzialak.

**8.3. Segidako traktuko kontratuak luzatzea**: kontratuaren klausula espezifikoen 6.4. klausulan hala xedatzen denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahal izango du. Hori nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, salbu eta SPKLren 198.6. artikuluan jaso dagoen kontratua suntsitzeko arrazoia tartean badago. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat derrigorrezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak aurreabisua eman beharko dio kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago.

Kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da kontratua luzatzea, eta hori erabakitzeko prozedurak jarduketa hauek hartuko ditu barnean:

a) Kontratua sustatu duen organoaren txostena; han adieraziko dira kontratu-harremana luzatzea dakarten interes publikoko arrazoiak, prezioa eta epea.

b) Kontratistari entzunaldia ematea, bost (5) egun baliodunekoepean.

c) Txosten juridikoa.

d) Esku-hartze orokorraren gastuari buruzko fiskalizazio-txostena.

e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

## 9. BERMEAK.

**9.1.** Behin-behineko bermea SPKLren 108.1. artikuluan ezarritako formuletako batean eman ahal izango da, eta SPKLren 106.3. artikuluan xedatuta dauden moduetan gordailutu beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako lizitatzaileari behin-behineko bermea itzuliko zaio behin betiko bermea eratzen duenean, SPKLren 106.4. artikuluan eta baldintza orokorren 23.4. klausulan xedatutakoari jarraituz.

**9.2.** Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko apartatuan aurreikusitako formulen bitartez eman ahal izango dira, baita prezioa atxikita ere, hori kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan baimenduta badago.

Behin betiko bermea eta berme osagarria Arartekoan gordailutuko dira beti.

**9.3.** Aldi baterako enpresa-elkartea (aurrerantzean ABEE) denean, behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko partaide batek edo batzuek eratu ahalko dituzte, betiere guztira eskatzen den zenbateko osoa lortzen bada, eta kide guztiak batera eta modu solidarioan bermatuta badaude.

## 10. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK

**10.1.** Kontratatzailearen profilera sartzeko, honako esteka hau erabiliko da:

https://sede.ararteko.eus/contratante/p_1_pc_principal1.jsp?codResi=1&language=es

**10.2.** Kontratatzailearen profilean honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

1. Aldez aurretiko informazioaren iragarkia, hala badagokio.
2. Lizitazioaren iragarkia.
3. Espedientea onesteko ebazpena.
4. Administrazio-klausula partikularren plegua, preskripzio tekniko partikularren plegua eta dokumentazio osagarria.
5. Kontratuaren xede zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

6. Honako hau justifikatzen duen memoria: kontratazioa egiteko beharrizana, kontratazioaren egokitasun eta efizientzia eta kontratazioak kontratuaren xedearekin duen harreman zuzen, argi eta proportzionala.

7. Behar adina baliabiderik ez duela dioen txostena.

8. Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.

9. Merkatuari buruzko aurretiazko kontsultarik egin bada, egin diren kontsultei buruzko txosten arrazoitua, SPKLren 115. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

10. EKAB betetzeko fitxategia.

11. Kontratazio-organoari lagundu behar dioen kontratazio-mahaien osaera eta kideen kargua.

12. Balio-judizio baten mendean dauden esleipen-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeko kideen izendapena, aditu horien esku-hartzea kontratuaren klausula espezifikoen 20.5. klausulan azaltzen baldin bada. Gainera, kideen kargua adierazi beharko da.

13. Kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.

14. Hala badagokio kontratazio-organoaren ebazpena, zeinaren bidez administrazio-klausula partikularren pleguan edo preskripzio tekniko partikularren pleguan aldaketa esanguratsuak sartzen diren eta epea luzatzearen ondorioz eskaintzak aurkezteko mugaegun berriak ezartzen diren. Dena dela, jardueretan atzera egitea erabaki ahalko da, SPKLren 122.1. eta 124. artikuluen arabera.

15. Kontratazio-organoak administrazio-klausula partikularren plegua edo preskripzio tekniko partikularren plegua aldatzeko emandako ebazpena, akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentze aldera.

16. Pleguei edo gainerako dokumentazioari buruzko argibideak, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.3. klausularen arabera erantzunak lotesleak izan ala ez.

17. Esleipen-prozeduran parte hartzen duten lizitatzaileen kopurua eta nortasuna.

18. Kontratazio-mahaiaren bilera publikoak egiteko datak eta lekuak, eta, hala badagokio, data eta leku horien aldaketak, bai eta hori guztia zein webgunetan ikusi ahalko den, hala badagokio.

19. Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda, eta, baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoiak.

20. Kontratazio-mahaiaren aktak.

21. Eskaintza bakoitzaren balio-judizioaren bidez kuantifikatu ahal diren esleipen-irizpideak baloratzeko txostena.

22. SPKLren 149.4. artikuluaren arabera ustez anormalak izan daitezkeen eskaintzei buruzko txostena edo txostenak, hala badagokio.

23. Eskaintzei esleitutako puntuazioak, puntuazio horiek aktetan jasotzen ez badira edo aktak idatzi eta argitaratu arte.

24. Kontratua esleitzeko ebazpena.

25. Esleipendunaren nortasuna.

26. Esleipenaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne dela.

27. Kontratua formalizatzeari buruzko iragarkia eta kontratu-dokumentua.

28. Kontratua sinatzeari buruzko datu guztiak SPKLren 154.7. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera zergatik ez diren argitaratzen azaltzen duen txostena.

29. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez esleitzeko edo ez sinatzekoa.

30. Kontratazio-organoaren ebazpena, esleipen-prozeduran atzera egitekoa.

31. Kontratazio-organoaren ebazpena, esleipen-prozedura eman gabe utzi dela adierazten duena.

32. Errekurtsoak aurkeztea eta, horren ondorioz, esleipen-prozedura etetea.

33. Esleipen-prozedura baliogabetzeko ebazpena.

34. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua luzatzeari buruzkoa.

35. Kontratua aldatzeari buruzko iragarkiak, kontratazio-organoak kontratua aldatzeko emandako ebazpena, horretarako justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, bidezkoa bada, onetsi aurretik bildu diren txosten guztiak.

36. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua lagatzeko baimena ematen duena.

37. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEren osaera aldatzeko baimena ematen duena.

**10.3.** Interesdunek kontsultak egin ditzakete eta dokumentazio osagarria edo informazio gehigarria eska dezakete kontratuaren klausula espezifikoen 20.6. klausulan ageri diren helbide elektronikoen bitartez. Hori idatziz egingo da informazioa eskatzeko kontratuaren klausula espezifikoen 27.1.1. klausulan azaltzen den mugaegunera arte. Eskariak kontratuaren klausula espezifikoen 27.1.2. klausulan azaltzen den mugaegunera arte (hori barne dela) artatu beharko dira.

## II. LIZITAZIOA

### 11. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

**11.1.** Kontratazio-prozeduran pertsona fisiko eta juridikoek parte hartu ahalko dute, espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasuna badute, kontratatzea debekatuta ez badute eta kaudimenari buruzko baldintzak betetzen badituzte edo, hala badagokio, sailkapena badaukate; eta hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan ezarritako gaikuntza badute (baldin eta klausulan adierazi bada gaikuntzak “eskaintzak aurkezteko azken egunean” eduki behar direla).

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eta ABEE batean elkartu diren pertsonek ere parte hartu ahal dute, legearen arabera aurreikusitako baldintzen arabera.

Parte hartu ahal dute SPKLren 66.1. artikuluan xedatuta dagoena betetzen duten pertsona juridikoek eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako eragile

ekonomikoek eta Europar Batasunekoak izan ez arren SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan xedatuta dagena betetzen duten eragile ekonomikoek.

**11.2.** Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 25.4. klausulan aldaerak onartzen badira. Bakarrik aurkezten direnek ezin izango dute beste proposamenik izenpetu ABEE batean sartuta, ez eta ABEE batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko pertsona horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

**11.3.** Kontratuaren klausula espezifikoen 21.7. eta 21.8. klausulen arabera kontratua hurrenez hurren gizarteratzeko Enplegu Zentro Bereziei eta laneratzeko enpresei erreserbatu bazaie edo enplegu babestuko programen barruan sartuta badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatuta dagoenaren arabera, edo erakunde jakin batzuei erreserbatu bazaie SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, horrez gain legearen arabera ezarritako baldintzak betetzen dituztenek soilik parte hartu ahalko dute (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua; 44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratze-enpresen erregimena arautzekoa; eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria).

**11.4.** Hala badagokio kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan eskatzen den gaitasun, kaudimen eta enpresa- edo lanbide-gaitasunari buruzko inguruabarrak (salbu eta klausula horretan adierazi bada gaikuntzak "eskaintzak aurkezteko azken egunean" eduki behar direla) eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean horiek betetzen jarraitu beharko da.

Kontratazio-mahaiak <u>prozeduraren edozein unetan</u> eskatu ahal izango die lizitatzaileei ziurtagiri eta dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, kontratua esleitu aurretik, prozeduraren bilakaera egokia bermatzeko baldin bada. Halaber, kontratazio-mahaiak enpresari eskatu ahal izango dio aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko, edo beste dokumentu batzuk aurkezteko.

**11.5.** Eskaintza aurkeztu izanak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honen nahiz gainerako kontratu-dokumentuen klausulak, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe, eta gainera baimena ematen diela kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari, kontratua esleitzeko prozeduraren edozein unetan, Euskal

Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estatu baten datu base nazional batean jasotako datuak kontsultatzeko, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doakoa bada. Eragile ekonomikoak ez dute zertan dokumentaziorik aurkeztu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan ageri diren datuak egiaztatzeko.

## 12. ESKAINTZAK AURKEZTEA.

**12.1. Hizkuntza:** Agiriak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu behar dira.

**12.2. Bitartekoak:**

**12.2.1. Baliabide elektronikoak.** Salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 21.5. klausulan azaltzen bada kontratuaren esleipen-prozedura izapidetzeko bitartekoak ez direla elektronikoak, eskaintzak bitarteko elektronikoekin aurkeztuko dira, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez. Aplikazio hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMAn dago kokatuta.

**12.2.1.1. Bitarteko horiek erabiltzeko betekizunak honako hauek dira:**

**1. Administrazio-betekizunak:**

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikorako baimenduta erabili ahal den ziurtagiri digitala edukitzea. Gaur egun honako hauek dira mota horretako ziurtagiri elektronikoak:

- Izenpe (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria)

- Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria)

- NANe

b) Honako egoera hauetako batean egotea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria edukitzea.

- Aldi baterako gaikuntza sisteman alta emanda egotea.

- Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkartuta lehiatzen badira eta esleipena lortuz gero ABEE bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen badute: ABEE eratzeko konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar du.

**2. Betekizun teknikoak:**

Kontsultatu esteka honetan betekizun teknikoei buruzko informazioa:

https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/cambios_configuracion.html

**3. Euskarri-zerbitzua, lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko:** 945 016 298

**12.2.1.2. Aurkezteko modua:**

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 25. klausulan azaltzen diren dokumentuak erantsi behar dira, klausula horren arabera aplikazioan ageri diren gutun-azaletan.

b) Luzapen hauekin gordetako dokumentuak soilik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc., .xls., .ppt.,.docx., .xlsx., .pptx., .pdf., .rtf., .sxw., .sdw., .abw., .xml., .jpg., .bmp, .tiff., .zip., eta .7z.

c) Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, bidali beharreko dokumentuetan .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuak erabiltzea gomendatzen da.

d) Eskaintza aurkezteko epean jaso dela ulertuko da baldin eta epe horren barruan transmisioa hasi eta behar bezala amaitzen bada.

### 12.2.2. Paperean aurkeztea

Eskaintzak paperean aurkeztu ahal izango dira, bakarrik, klausula espezifikoen 21.5. klausulan berariaz ezartzen denean horretarako aukera dagoela.

#### 12.2.2.1. Aurkezteko modua:

a) Dokumentuak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren barruan, bertan sartu diren agirien aurkibide zenbakitua sartu beharko da, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean honako datu hauek idatziko dira:

1) Gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C, edo dena delakoa), kontratuaren klausula espezifikoen 25. klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

2) Kontratuaren identifikazioa: espediente-zenbakia eta xedea.

3) Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, bere izen soziala eta IFZ adieraziko dira; eta pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

4) Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

b) Gutun-azalak lizitazioaren iragarkian ezarritako epearen barruan —eguna eta ordua— aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 20.7.1 klausulan adierazitako erregistroan, edo Correosen bulegoetan, eta, gero, aipatutako bulegoetara bidaliko dira.

Dokumentazioa Correosen bulegoetan aurkezten bada, lizitatzaileak bidali izana jakinarazi beharko du, eta horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko du kontratuaren klausula espezifikoen 20.6. klausulan ageri den helbidera, egun horretan bertan. Posta elektroniko bidez egindako

jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, jasota geratu beharko da bidali eta jaso izana, noiz bidali den eta noiz jaso den, bai eta zer bidali den ere (komunikazioaren eduki osoa), nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Kasu horretan, kopia bat inprimatu eta erregistratu egingo da, eta espedienteari erantsiko zaio.

Bidali izanaren jakinarazpenean kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa jarri behar da (baldintza orokorren 12.2.2.1. klausulako a) letrako 2) eta 3) apartatuetan ezarritakoari jarraituz). Jakinarazpen horrekin batera, Correosen bulegoak emandako frogagiria bidaliko da. Lizitazioaren iragarkian adierazitako datatik hamar (10) egun natural igaro eta dokumentazioa jasotzen ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

**12.2.2.2. Dokumentazioa itzultzea:**

Esleipena lortu ez duten eta dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek idatziz bidali beharko diote eskaera kontratazio-mahaiko idazkariari —espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz—, eta administrazio-egoitzetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Dokumentuak jasotzera joaten den pertsonaren nortasuna NAN edo dokumentu baliokidea erakutsita egiaztatu ondoren egingo da dokumentuen entrega, baldin eta zazpi (7) hilabete igaro badira kontratua formalizatu zenetik eta ez bada errekurtsorik jarri. Epe hori amaitu ostean inork ez badu dokumentazioa jaso hilabeteko (1) epean, suntsitu egingo da.

Jarduketa berberak egingo dira, eta epe berberak aplikatu, prozeduran atzera egiten bada edo kontratuari uko egiten bazaio.

## 12.3. Konfidentzialtasuna

Aurkeztutako dokumentu bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek izendapen esplizitua egin behar dute —horretarako, VI. ERANSKINA bete behar dute— eta argi eta garbi adierazi behar dute hori, gaininprimatuta edo

orriaren bazterrean, konfidentzialtzat jo den dokumentuan bertan. Izendapena horrela egiten ez bada, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

VI. ERANSKINean, sekretu tekniko eta komertzialei lotuta egoteagatik eskaintzan konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta alderdiak azaltzeaz gain, sekretu horiei zein arrazoi zehatzengatik lotzen zaizkien azaldu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere izango konfidentziala. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela esan bada, ondorioztatuko da ez dela eskaintzarik egin.

Konfidentzialtasun-deklarazioak ezin du barne hartu lizitatzaileak aurkeztu duen dokumentazio osoa, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoa ere. Kasu horretan, edo deklarazio hori oker dimentsionatzen denean, kontratazio-organoak erabakiko du (arrazoiak emanez) zer datuk edo zer dokumentuk izan behar duten konfidentzialak. Gauza bera egingo du kontratazio-organoak baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egoki eta nahikoa oinarridunik lizitatzaileak konfidentzialtzat jotzeko hala deklaratutako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu espresuki adierazi datu edo dokumenturen bat konfidentziala denik, datu edo dokumentu bat ere konfidentziala ez dela ondorioztatuko da. Hala ere, salbuespen moduan eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo dezake konfidentzial deklaratu ez den informazioren bat, enpresa-interes legitimoak zaintzearren.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ostean ezin izango da adierazi datu batzuk konfidentzialak direla, datu horiek aurkeztean halakorik adierazi ez bazen.

Esleipen-prozeduran hasierako eskaintzaren barruan ez zegoen dokumenturen bat aurkezten bada, dokumentazio berri horren artean dauden datu edo agiriak konfidentzialtzat jo ahal izango dira, klausula honen aurreko paragrafoetan azaltzen diren baldintzetan.

### 12.4. Dokumentazioa egiaztatzea.

Botere esleitzaileak, esleipen-prozeduraren barruan nahiz kontratua esleitu eta formalizatu ondoren, aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla egiaztatu ahalko du. Datuak faltsuak badira, baliteke kontratua baliorik gabe uztea. Arrazoi horregatik kontratua baliogabe deklaratzea operadore ekonomikoari leporatu ahal zaion ez-betetzea da; hala gertatuz gero,

operadore ekonomiko horrek botere esleitzaileari kalte-ordaina eman beharko dio, jasandako kalte eta galerengatik.

## 12.5. Jakinarazpenak eta komunikazioak

### 12.5.1. Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.

**12.5.1.1.** Esleitzeko erabakia eta SPKLren 44.2. artikuluan definitutako tramite-egintzak jakinarazi egin beharko dira.

**12.5.1.2.** Honako hauek izango dira komunikazioak: argibide-eskariak, akatsak edo ez-egiteak konpontzeko errekerimenduak, baldintza-agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2.b) artikuluan sartzen ez diren bestelako izapidetze-egintzak.

### 12.5.2. Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

Jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko lizitazio elektronikoaren sistema erabiliko da.

### 12.5.3. Eskaintzak elektronikoak ez diren bitartekoen bidez edo paperean aurkeztea.

Jakinarazpen elektronikoaren sistema ezarri bitartean, enpresa lizitatzaileei egin beharreko jakinarazpenak hark zehaztutako helbide elektronikora bidaliko dira.

Administrazioak honako kasu hauetan erabil dezake posta elektronikoa komunikatzeko:

- Konpontzeko moduko akatsik edo gabeziarik sumatuz gero A gutun-azalean (AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK) aurkeztutako dokumentazioan.

- Argibideak eskatzeko.

- Balioa anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari entzunaldia emateko.

- Administrazio-klausula partikularren pleguan edo haren azalean aurreikusitako dokumentazioaren errekerimenduak,

eta SPKLren 44.2.b) artikuluan jasota ez dauden beste izapidetze-egintza batzuk.

Errekerimendu horiei erantzuteko dokumentazioa contratacion@ararteko.eus helbidera bidali beharko da gehieneko epea amaitu aurretik.

Kasu horretan, lizitatzaileek argibideei edo errekerimenduei erantzuna emateko posta elektronikoa erabili ahalko dute baldin eta argibideak eta deklarazioak biltzen dituzten dokumentuak edo behar bezala sinatuta aurkeztu beharreko dokumentuak digitalki sinatu baditu lizitatzailea ordezkatzeko botere nahikoak dauzkan pertsonak.

## 13. A GUTUN-AZALA: "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK".

### 13.1. Gutun-azal honetan bildu behar diren dokumentuen zerrenda:

**13.1.1.** Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), behar bezala beteta. Agiri hori https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es helbidean bete behar da, kontratatzailearen profilean (I. ERANSKINA) argitaratutako .xml fitxategia erabilita.

Halaber, egokiak diren EKABak aurkeztuko dira baldintza orokorren 13.3. klausulan jasota dauden kasuetan.

**13.1.2.** Behin-behineko bermea, kontratuaren klausula espezifikoen 9.1. klausulak hala eskatzen badu.

**13.1.3.** Baliabideak atxikitzeko konpromisoa, III. ERANSKINean ageri den ereduaren arabera.

**13.1.4.** Prestazioa egikaritzeaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa, kontratuaren klausula espezifikoen 22.5. klausulan hala eskatzen bada.

**13.1.5.** Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzialtzat jotzea VI. ERANSKINean ageri den ereduaren arabera.

**13.1.6.** Formalki ABEE eratzeko konpromisoa, VIII. ERANSKINean ezarritakoarekin bat.

**13.1.7.** Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei dagokienez operadore ekonomikoak bere gain hartutako konpromisoei buruzko deklarazioa, IX. ERANSKINean ageri den ereduaren arabera.

**13.1.8.** Klausula espezifikoen 1.2. klausularen araberako sortarik egongo balitz, berariaz jakinaraziko zaie eskaintza aurkezten zaien sortei.

**13.1.9.** Operadore ekonomikoak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian egikarituko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

**13.1.10.** Europar Batasunekoak ez diren hainbat operadore ekonomiko izanez gero, SPKLren 68.1. artikuluan araututa dagoen txostena aurkeztu behar dute.

Halaber, kontratua Espainian egikarituko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

### 13.2. Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan.

Aldi baterako enpresa-elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala zehazteko, operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

Kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausularen arabera klausula horretan azaltzen den kaudimenaren ordez 22.3. klausulan jasota dagoen sailkapena erabil ahal bada, eta ABEEn parte hartzen duten operadore ekonomiko guztiek sailkapena badaukate, banakako sailkapenak zerbitzuen kontratista gisa metatuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 22.3. klausulan azaltzen den sailkapen orokorra lortu ahal izateko.

Hala ere, sailkapena operadore ekonomiko guztiek ez badaukate, ondorioztatuko da ABEEk bete egiten dituela eskatutako kaudimen-betekizunak baldin eta, elkartea osatzen duten enpresa guztiek egiaztatutako ezaugarriak metatu ondoren, aldi baterako elkarteak betekizun hauetakoren bat betetzen badu:

- Kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausulan adierazitako kaudimen-betekizunak.

- Kontratuaren klausula espezifikoen 22.3. klausulan adierazitako Taldea, Azpitaldea eta Kategoria.

**13.3. Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) arau espezifikoak:**

**13.3.1.** Kontratua sortaka banatuta baldin badago, eta hautaketa-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak sorten arabera aldatzen baldin badira, EKAB bana aurkeztu behar da sorta bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, kaudimena egiaztatzeko bitarteko berberak behar badira sorta guztietarako, eta betekizunak operadore ekonomikoaren eskaintza lotuko zaien sorta-kopuruaren arabera aldatzen badira, EKAB bakarra bete beharko da sorta guztietarako.

**13.3.2. Azpikontratistak:**

**13.3.2.1.** Kontratuaren klausula espezifikoen 15.2.a) klausulan hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek EKABen II. zatiko D atala bete behar dute, eta honako datu hauek adierazi behar dituzte:

- Aurreikuspenen arabera azpikontratatuko diren kontratuaren zatia(k)

- Aurreikuspenen arabera azpikontratatuko den zati bakoitzaren ehunekoa

- Azpikontratist(ar)en izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta.

**13.3.2.2.** Kontratuaren klausula espezifikoen 15.2.b) klausulan hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1. klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatu behar duten pertsonaren EKAB (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) aurkeztu beharko dute edo, pertsona bat baino gehiago badira, zenbat pertsona

azpikontratatu behar diren, hainbeste EKAB, behar bezala sinatuta.

**13.3.3. Kaudimena kanpoko bitartekoekin osatzea:** Operadore ekonomikoak beste pertsona edo operadore batzuen kaudimena edo bitartekoak erabili nahi baditu, bere EKAB eta pertsona edo operadore horietako bakoitzaren EKABak aurkeztu beharko ditu (zenbat pertsona edo operadore, hainbeste EKAB), behar bezala sinatuta, eta II. zatiaren A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta; gainera, hala dagokionean, IV. zatia ere beteko da.

**13.3.4. ABEE:** Zenbait operadore ekonomikok ABEE batean parte hartu nahi badute, parte hartzen duen operadore ekonomikoek EKAB bana aurkeztu beharko dute, eta, han, II.-IV. zatietan eskatzen den informazioa jaso beharko dute.

**13.3.5. Sailkapena:** Kaudimenaren ordez kontratuaren klausula espezifikoen 22.3. klausulan adierazitako sailkapena erabili nahi bada, dagozkion talde, azpitalde eta kategoriak adierazi beharko dira EKABen II. zatiaren A atalean, kontratazio-mahaiko kideek sailkapenaren ziurtagiria ofizioz eskuratzeko aukera izan dezaten.

**13.3.6. Baztertzeko arrazoiak:** Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatuta dagoenaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazionalak (nazionalak bakarrik) honako hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluari jarraituz desgaitasunen bat duten pertsonentzat lanpostuen % 2ko erreserbaren kuota ez betetzea.

- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa) 45. artikuluan xedatutakoaren arabera berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra ez betetzea, 250 langileko baino gehiagoko operadore ekonomikoen kasuan.

## III. GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

### 14. ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK, ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA.

**14.1. Kontratazio-mahaiak eskaintzak baztertzea erabakiko du baldin eta:**

a) Dokumenturen bat badute kontratuaren klausula espezifikoen 25. klausulan aipatutakoez besteko gutun-azalen batean, eskaintzaren isilpekotasuna kolokan jartzen bada.

b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo urratuak badituzte, horrek eskaintzaren edukia argi ulertzea eragozten badu.

c) Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen eskaintzak.

d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko unitate-prezioak gainditzen badituzte.

e) Agiri honetan agertzen den eskaintza ekonomikoaren eredua aldatzen dutenak.

f) Eskaintzaren zenbatekoan errore nabarmena ageri duten eskaintza ekonomikoak.

g) Errorea badute edo funtsik ez badute, eta horren ondorioz bideraezinak badira, lizitatzaileak berak onarturik.

h) Administrazio-klausula partikularren pleguan edo preskripzio tekniko partikularren pleguan ezarritako baldintza edo betekizunak urratzen badituzte.

i) Irakurtzea edo edukia ikustea eragozten duten birusen bat badute.

j) Kontratuaren klausula espezifikoen 21.5. klausulak izapidetze-bitartekoak “ez-elektronikoak” direla ezarrita, eskaintza lizitazio-iragarkian azaldutako epea amaitu ondoren aurkezten bada.

k) Kontratuaren klausula espezifikoen 21.5 klausulak izapidetze-bitartekoak “ez-elektronikoak” direla ezarrita, eskaintza baldintza orokorren 12.2.2.1. klausulan azaldutako epea amaitu ondoren bidaliko dela iragartzen bada.

l) Kontratuaren klausula espezifikoen 21.5. klausulak izapidetze-bitartekoak “ez-elektronikoak” direla ezarrita, eskaintza kanpoaldean identifikatuta (A, B, C) ez dauden gutun-azaletan aurkezten bada edo gutun-azalak (B, C) itxita aurkezten ez badira.

**14.2.** Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak hobeto ulertu ahal izateko

argibideak. Inola ere ez da onartuko enpresa lizitatzaileak, argibideak ematean, eskaintzan adierazitako ezer aldatu nahi izatea.

## 15. AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA.

**15.1.** Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak bilera egingo du A gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko.

Aztertutako dokumentazioa betekizunak bete direla egiaztatzeko zuzena eta nahikoa dela ondorioztatzen badu, enpresa lizitatzaile guztiek prozeduran parte hartzea onartuko du.

Aztertutako dokumentazioan konpon daitezkeen akats edo ez-egiteak ikusten baditu, dokumentazio hori aurkeztu duten edo zerbait aurkeztu ez duten lizitatzaileei hiru (3) egun baliodunek o epea emango die, detektatutako akatsa edo ez-egitea konpontzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezaten.

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta lizitatzaileak onartu ala baztertu erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

**15.2.** Hautatutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

## 16. APLIKATZEKO BALIO-JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

### 16.1. Gutun-azalak jendaurrean irekitzea.

Kontratazio-mahaiak, ekitaldi publikoan, enpresa lizitatzaileak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du, eta, ondoren, onartu diren lizitatzaileek aurkeztu zituzten C gutun-azalak irekiko ditu.

### 16.2. Kasu orokorra: Kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Dokumentazioa kontratua sustatzen duen zerbitzuari bidaltzea erabaki dezake kontratazio-mahaiak, zerbitzuak berak egiazta dezan eskaintzen edukia ez dela preskripzio tekniko partikularren pleguan ezarritako zehaztapenen aurkakoa, eskaintzak balora ditzan eta txostena egin dezan.

### 16.3. Salbuespena: Aditu-batzordeak edo organismo espezializatuak ebaluatzea.

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.5. klausulak ezartzen badu aditu-batzorde bat edo organismo espezializatu bat izendatu behar dela eskaintzaren zati hau ebaluatzeko, izendatutako organoari bidaliko dio dokumentazioa kontratazio-mahaiak, ebaluazioa eta txostena egin ditzan. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

## 17. FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

### 17.1. Gutun-azalak ireki aurreko jarduketak

#### 17.1.1. Balio-judizioa eskatzen duten irizpideak erabiltzen dira.

Baldintza orokorren 16.2. klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak ireki aurretik, kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:

Bileraren zati publikoa hasi aurretik:

- Kontratua sustatzen duen zerbitzuak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak baloratuko eta puntuatuko ditu.
- Baldintza orokorren 14.1. klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza(k) baztertzea erabakiko du.

Bileraren zati publikoa hasi ondoren:

- Eskaintza bakoitzari emandako puntuak jakinaraziko dizkie ekitaldi publikora bertaratu direnei eta, hala badagokio, baztertu diren eskaintzen berri ere emango die, baztertzeko arrazoiak azalduta.

Baldintza orokorren 16.3. klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, kontratazio-mahaiak, gutun-azala ireki aurretik, aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak emandako puntuak jakinaraziko ditu, eta, hala badagokio, baztertu diren eskaintzen berri ere emango du, baztertzeko arrazoiak azalduta.

#### 17.1.2. Ez da erabiltzen eskatzen duen irizpiderik

Gutun-azalak ireki aurretik, zein lizitatzaile onartu diren eta zein baztertu diren jakinaraziko du kontratazio-mahaiak.

### 17.2. Gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak irakurtzea.

Kontratazio-mahaiak, aurretiko jarduketak egin ostean, ekitaldi publikoan irekiko ditu baztertu ez diren lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

## 18. ESKAINTZAK EBALUATZEA.

Ondoren, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak, beharrezkoak diren bileretan:

**18.1.** Egiaztatuko du ea eskaintzaren bat baztertzeko arrazoirik dagoen (baldintza orokorren 14.1. klausulan ezarrita daude horiek). Halakorik egonez gero, eskaintza baztertzeko erabakia hartuko du.

**18.2.** Egiaztatuko du ea onartutako eskaintzek kontratuaren klausula espezifikoen 23.3. klausulan ezarrita dauden mugak gainditzen dituzten, eta eskaintzaren batek horiek gainditzen baditu, SPKLren 149.4. artikuluan aurreikusita dagoena egingo du. Kontratazio-mahaiak erabakiko du zein izango den entzunaldi-epea, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, baina gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa izango da.

Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin diren eskaintzak onartzea edo baztertzea.

**18.3.** Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta eskaintzarik onena zein den zehaztuko du, haietariko bakoitzak esleipen-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuta.

Kalkulu hori egiteko ez ditu kontuan hartuko baztertzeko proposatu diren eskaintzak.

Eskaintza bik edo gehiagok puntuazio berbera lortzen badute, horiek eskaini dituzten lizitatzaileei errekerimendua egingo die, gehienez ere hamar (10) egun baliodunneko epean berdinketa hausteko irizpide zehatzak betetzeari buruzko egiaztagiriak aurkez ditzaten, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan irizpide horiek azaltzen badira. Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan irizpide zehatzik ezarri ez bada,

berdinketa hausteko baldintza orokorren 19. klausulan jasotzen diren irizpideei jarraituko zaie.

## 19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan berdinketa hausteko irizpide zehatzik aurreikusten ez bada, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren zenbait eskaintzaren artean gertatzen den berdinketa ebatziko da honako irizpide sozial hauek adierazitako hurrenkeran aplikatuz —betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkio—:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillatik desgaitasunen bat duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdintasuna izatekotan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuru handiena duena edo plantillan inklusio neurrien bidez dauden langile kopuru handiena.

b) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Irizpide horiek aplikatze aldera, lizitatzaileek irizpideok egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio, lan-kontratu egokiak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen dokumentuak eta zuzenbidean onartutako bestelako dokumentuak ere aurkeztuz, baldin eta aipatu diren irizpide sozial horiek egiaztatzen badituzte.

# IV. KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA

## 20. KONTRATUAREN ESLEIPEN-PROPOSAMENA

Kontratazio-mahaiak puntuen arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntu gehien eskuratu duenetik puntu gutxien duenera, eta sailkapen horren arabera igorriko dio esleipen-proposamena kontratazio-organoari.

## 21. ESLEITU AURREKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

**21.1.** Kontratazio-organoak esleipen-proposamena onartu ondoren, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo zaio, errekerimendu hori jasotzen duenetik aurrera zenbatuta hamar (10) egun balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzan:

**1.** Jarduteko gaitasuna duela egiaztatzeko:

1.1. Pertsona juridikoak diren Espainiako lizitatzaileek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatuko dute. Horretarako, agiri hauetako bat aurkeztu beharko dute: eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-akta; han, beren jarduera erregulatzen duten arauak egon behar dute jasota, eta, horrez gain, agiriak pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon behar du.

**1.2.** Espainiakoak ez izan arren Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren lizitatzaileek jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute SPKLren 84.2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**1.3.** Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3. artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

**2. Ahalordetzea:** Eskaintza sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, behar bezalako ahalordea aurkeztu behar du sinatzaileak. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, botere horrek dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta agertu beharko du, baldin eta, zein motatako pertsona juridikoa den kontuan hartuta aplikatu behar den araudiaren arabera, nahitaez inskribatu behar badu.

**3. Kaudimena:** Kontratuaren klausula espezifikoen 22.1. klausularen arabera kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk betetzea nahitaezkoa bada, lizitatzaileak kontratuaren klausula espezifikoen 26.1. klausulan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du betekizun horiek egiaztatzeko, salbu eta sailkapena dela-eta betekizun horiek egiaztatu behar ez badira.

**4. Enpresa- edo lanbide-gaikuntza:** Kontratuaren klausula espezifikoen 22.4. klausulan azaltzen bada eskaintzak aurkezteko azken egunean gaikuntza eduki behar dela.

**5. Lizitatzaileak kontratuaren egikaritzapenari atxiki nahi dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak eskura izatea:** Kontratuaren klausula espezifikoen 26.2. klausulan azaltzen den dokumentazioa.

**6. Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak eskura izatea:** Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena edo bitartekoak erabili nahi baditu, VII. ERANSKINean jasotako "Beste entitate batzuen kaudimena edo bitartekoak eskura izateari buruzko konpromisoa" aurkeztu beharko du.

**7. Kontratatzeko debekurik ez izatea:** Kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duten agiriak, SPKLren 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (X. ERANSKINA).

**8. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea:** Sektore publikoarekin kontratatzeko zerga-betebeharrak egunean dituela dioten egiaztagiriak eta sektore publikoarekin kontratatzeko Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioten egiaztagiriak. Lizitatzaileak zergak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

**9. Bermea:** Behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria eratu izanaren frogagiria (salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 9.2 klausulan halakorik eskatzen ez bada).

**10. Publizitate-gastuak:** Kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala adierazi bada, dagozkion publizitate-gastuen ordainagiria.

**11. Erreserbatutako kontratuak:** Kontratuaren klausula espezifikoen 21.7. edo 21.8. klausulen arabera kontratua erreserbatua bada, lizitatzaileak agirien bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

**12.** Kopia sinplearen bidez aurretiaz aurkeztu ahal direnen artean eska daitezkeen jatorrizko dokumentuak. Ziurtagiriak baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan azaltzen diren erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan azaltzen diren ondorioak izango ditu, erregistro, zerrenda eta datu-base horietan

ageri diren datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere horietara sartzea doakoa bada.

**21.2.** Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZik gabe), zehapen gisa; zenbateko hori lehendabizi ordainduko da, behin-behineko bermearekin batera, baldin eta hori eratu bada, SPKLren 71.2.a) artikuluan ezarritakoa ezertan kendu gabe.

- Hurrengo lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari jarraituz.

## 22. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

**22.1.** Esleipen-proposamenari lotutako dokumentazioa jaso eta bost (5) egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua kontratazio-organoak.

**22.2.** Esleitzeko ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta horrekin batera, hala badagokio, eskaintzaren barruan aplikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideekin ebaluatu diren zatiak baloratzeko txostena eta eskaintza txikiegien justifikazioa aztertzeko txostena; biak ere, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

**22.3.** SPKLren 44. artikuluan jasotako errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaile bati esleitu behar badio, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaile horri, baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.

**22.4.** Esleipena betiere bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da.

## 23. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

**23.1.** Kontratua SPKLren 153. artikuluak xedatzen dituen baldintza eta epeetan formalizatuko da, eta aurretiaz honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) ABEE eratzeari buruzko eskritura publikoa, esleipendunek ABEE batean elkartuta parte hartu badute.

b) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 10. klausulan zehazki eskatzen diren aseguruen polizak; poliza horietan aseguratuta egon beharko dute kontratistak, azpikontratistak eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.1. klausulan adierazitako botere esleitzaileak. Gainera, polizaren ordainagiriak ere aurkeztu behar dira.

c) Enpresa- edo lanbide-gaikuntza, hura aurkeztu beharra dagoela zehaztu baldin bada kontratuaren klausula espezifikoen 22.4. klausulan, eta gainera, klausulan azaldu baldin bada gaikuntza hori kontratua formalizatu baino lehen eduki behar dela.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 27.4. klausulan azaltzen den dokumentazioa, hala badagokio.

**23.2.** Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, kontratua burutzen denetik aurrera. Halaber, kontratua erregulazio harmonizatuari lotuta badago, formalizazioari buruzko iragarkia bidaliko da, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, gehienez ere hamar (10) eguneko epean formalizatzen denetik aurrera.

**23.3.** Esleipendunari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua legearen arabera ezarritako epeetan formalizatzea ezinezkoa bada, honako hau egingo da:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZik gabe), zehapen gisa; zenbateko hori lehendabizi ordainduko da, behin betiko bermearekin batera, baldin eta hori eratu bada, SPKLren 71.2.a) artikuluan ezarritakoa ezertan kendu gabe.

- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleitzea, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari jarraituz, baldintza orokorren 2.1.1. klausulan jasotako dokumentazioa eskatu eta aurkeztu ondoren.

**23.4.** Kontratuaren klausula espezifikoen 9.1. klausulan behin-behineko bermea eskatu bada, kontratua formalizatu ondoren automatikoki desegingo da, eta kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei berehala itzuliko zaie. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabili den araubide berbera erabiliko da.

## 24. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren klausula espezifikoen 20.2.2. klausulan adierazitako organoak egin behar dituen kontratuaren jarraipen eta egikaritzapen eginkizunei kalterik egin gabe, kontratuaren arduradunak gainbegiratu eta ikuskatu beharko ditu lanak; arduradun horrek honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Kontratazio-organoari proposatzea baldintza orokorren 25.2, klausulan aurreikusitako lan-programa onets dezala.

b) Idatziz ematea zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak.

c) Baldintza orokorren 32.1. klausulan ezartzen diren zerbitzuen ziurtagiriak onestea.

d) Baldintza orokorren 32.2. klausulan adierazitakoak, hau da, zerbitzua ondo ematen eta hartzen dela egiaztatzeari buruzkoak.

e) Kontratuaren arabera kontratistak bere gain hartu dituen betebeharrak gainbegiratzea eta bete egin dituela egiaztatzea, kontratazio-organoari jakinaraztea zerbait bete ez dela, eta hala badagokio, kontratua bertan behera uzteko edo zehapenak ezartzeko proposamena egitea.

f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera kontratuaren egikaritzapenari atxiki zizkion giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.

g) Egin behar diren aldaketak proposatzea.

h) Errekerimendua egitea kontratistari, kontratuaren egikaritzapenari atxikitako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eman ditzan.

i) Errekerimendua egitea kontratistari dokumentazio gehigarria eman dezan, egiaztatu ahal izateko kontratuaren iraunaldi osoan hirugarren entitateen kaudimena edo baliabideak dauzkala, kaudimen edo baliabide horiek oinarri hartu baitzituen kontratuaren esleipen-prozeduran.

j) Egiaztatzea kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzen diela, baldintza orokorren 28.3.2. klausulan xedatutakoaren arabera.

k) Egikaritzapena berandutuz gero, sortutako atzerapena kontratistari leporatu ahal zaion zehazteko txostena egitea.

l) Baldintza orokorren 35. klausulan ABEEko kideen lagapenari eta aldaketari buruz jasotzen diren txostenak egitea.

m) Errekerimendua egitea kontratistari, akta bidez ziurta dezan kontratua egikaritzen amaitu ondoren datu pertsonalak zeuzkaten euskarri guztiak itzuli dituela edo datu pertsonalak zeuzkaten fitxategi guztiak suntsitu dituela.

Kontratuaren klausula espezifikoen 20.2.4. klausulan ageri denez, kontratuaren arduraduna aldatuz gero, idatziz jakinaraziko zaio hori, berehala, kontratistari.

## 25. ZERBITZUAK EGIKARITZEA

### 25.1. Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

Zerbitzuak egikaritzean modu zorrotzean beteko da kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan, kontratistaren eskaintzan eta hori guztia burutzeko edo interpretatzeko kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideetan ezarrita dagoena.

### 25.2. Lan-programa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.1. klausulan eskatzen bada, kontratistak kontratuaren arduradunari lan-programa bat entregatu beharko dio zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera. Lan-programa horretan, preskripzio tekniko partikularren pleguaren horri buruzko klausulan zehazten diren datuak jaso beharko ditu.

Lan-programak administrazio-klausula partikularren pleguan, eta, hala badagokio, eskaintzan, ezarritako epeak bete behar ditu, eta kontratazio-organoak onartuko du programa, hamabost (15) egun balioduneko epean.

### 25.3. Baimenak.

Kontratistak zerbitzua emateko behar diren baimen eta lizentzia publiko nahiz pribatu guztiak eskuratu behar ditu, eta sortzen diren gastuak ordaindu.

### 25.4. Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguru guztiak kontratatu behar ditu, eta kontratuaren klausula espezifikoen 10. klausulan ezartzen direnen kontratazioari eutsi behar dio.

### 25.5. Lankidetza

Kontratistak kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak eman behar dizkio botere esleitzaileari, inolako kostu gehigarririk gabe, adibidez azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea..., eta zerbitzua zein lekutan ematen den, horietarako sarbide librea emango dio kontratuaren arduradunari.

### 25.6. Enpresa kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratua egikaritzean omisio edo okerrik egiten badu, metodo desegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki egikaritzen baditu eta ondorioz botere esleitzaileari edo beste hirugarren bati kalte egiten badio, bera izango da erantzule.

### 25.7. Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan eman beharreko kalte-ordaina.

Kontratista aholkulariari egotz dakizkiokeen akats edo ez-egiteen ondorioz proiektuan aurreikusitako obra egikaritzeko aurrekontua benetako kostuaren % 20 baino gehiago desbideratzen denean (gorantz zein beherantz), kontratista aholkulariak kalte-ordaina eman beharko dio botere esleitzaileari, SPKLren 315. artikuluan ezarritako baremoaren arabera.

## 26. EGIKARITZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK

### 26.1. Baliabideak atxikitzeko konpromisoa.

Kontratista behartuta dago baliabideak atxikitzeko konpromisoan adierazitako baliabideak, halakorik egonez gero, kontratuaren egikaritzapenari atxikitzera (III. ERANSKINA), eta horrez gain, kontratuaren egikaritzapena kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintzen eta epeen arabera egiteko behar diren baliabideak ere atxiki beharko ditu.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik jakinarazpena egitea kontratuaren arduradunari. Hark ziurtatuko du, emandako ziurtagirien bitartez, proposatutako baliabideak nahitaezko betekizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun baliodun eko epea izango du baimena jakinarazteko. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiaren oinarrian zer arrazoi dauden adieraziz. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Giza baliabideak ordeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da klausula honetan ezarritakoa betetzea. Nolanahi ere, ordezpen horren ondorioz eragozpenen bat sortuko balitz lan-ingurunera egokitzeko, ordeztu behar den kideak eta ordezkoak batera jardun beharko lukete, kostu gehigarririk gabe, beharrezkoa den denbora guztian.

Prozedura eta baldintza hauen arabera ordeztu ahal izango da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezpenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari. Hamabost (15) egun baliodun lehenago jakinarazi beharko du –arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza–, eta datu hauek adierazi beharko ditu:

- Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.

- Ordezkoa izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen dituzten dokumentuak ere aurkeztuta. Zazpi (7) eguneko epean kontratuaren arduradunak ordezkapena baimenduko du; edo, hark ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela eskakizunok betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko zioak adierazita. Beste hautagai bat proposatu ahal izango du enpresa kontratistak.

b) Botere esleitzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala egikaritzeko ordezpenen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiaren oinarrian zer arrazoi dauden adieraziz. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

Halaber, lizitazio-fasean beste entitate batzuen kaudimena edota baliabideak erabili baldin baditu, kaudimena egiaztatze aldera, arau berak aplikatuko zaizkie emandako baliabideei.

## 26.2. Langileei lotutako arau espezifikoak.

Zerbitzuaren prestazioari atxikitako langileak enpresa kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak bakarrik izango dira enplegu-emaileei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Xede horrekin, kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kontratuaren egikaritzapenari atxiki behar dizkion langileak hautatzea. Hala ere, botere esleitzaileak ahalmena izango du baldintza-agirietan ezarri diren lanbide-kualifikazioko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.

b) Langileen egonkortasuna mantentzea eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izatea (exijentzia hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago), zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko; aldaketarik egonez gero, horren berri emango dio uneoro botere esleitzaileari.

c) Enplegatzaile ororen berezko zuzendaritza ahalmena modu errealean, efektiboan eta jarraituan baliatzea kontratuaren egikaritzapenari atxikitako langileen gain. Bereziki, hauek egin beharko ditu: soldatak negoziatu eta ordaindu; baimenak, lizentziak eta oporrak eman; langileak ordeztu bajak edo absentziak daudenean; Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak bete —dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne—; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete; diziplina-ahala erabili, eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak bete.

d) Bermatzea atxikitako langileek, jarduera garatu bitartean, baldintza-agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion eginkizunak besterik ez dituztela betetzen.

e) Bere plantillako pertsona bat gutxienez koordinatzaile izendatzea, honako zeregin hauek betetzeko:

- Kontratistaren mintzakide gisa jardutea botere esleitzailearen aurrean, komunikazioa bideratuz batetik kontratistaren eta kontratuari atxikitako langileen, eta, bestetik, botere esleitzailearen, artean, kontratua egikaritzetik eratorritako auzi guztietan.

- Lana langileen artean banatzea eta langileei lanerako agindu eta jarraibideak ematea, zerbitzua behar bezala emateko.

- Langileek aginduta dauzkaten eginkizunak behar bezala egiten dituztela gainbegiratzea, eta lanpostuan daudela kontrolatzea.

- Oporren araubidea antolatzea.

f) Botere esleitzaileari jakinaraztea kontratuaren egikaritzapenari atxikitako lantaldean sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak zein iraunkorrak.

**26.3. Lan-baldintzei buruzko informazioa.**

Kontratistak kontratuaren arduradunari hurrengo apartatuetan azaltzen diren datu eta dokumentuak eman behar dizkio, kasu bakoitzean adierazten diren epe eta baldintzetan:

- Emandako datuak benetakoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa bere gain hartutako lan-arloko betebeharrak bete dituela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunak eskatzen dituen dokumentuak posta elektroniko bidez aurkeztuko dira, eskaneatutako kopiekin batera, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eska dezake informazio hori, eta, bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**26.4. Kontratua non egikarituko den.**

Kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan azaldutakoari jarraituko zaio. Ahal dela, zeinu bereizgarriak (esate baterako, uniformeak eta errotuluak) erabiliko dira enpresa kontratistaren langileak eta baliabideak identifikatzeko.

**26.5. Ukigabetasunaren araua.**

Kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik botere esleitzailea kontratistarekin batera solidarioki diru-kopururen bat ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari jakinaraziko zaio ordaindutako zenbatekoa, egokiak diren legezko ekintzen bitartez.

**26.6. Langileen subrogazioa.**

Lan-araudiaren arabera langileak subrogatu behar badira, kontratua ordura arte zerbitzua ematen zuen kontratista ez den beste operadore ekonomiko

bati esleitzen zaionean, kontratistak ordaindu beharko ditu subrogazioaren mendean dauden langileei ordaindu ez zaizkien soldatak, bai eta sortu diren Gizarte Segurantzaren kotizazioak, kontratua suntsiarazten bada ere. Betebehar hori ez du inola ere izango kontratista berriak.

Kasu horretan, botere esleitzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru-kopuruen atxikipena egingo du soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

## 27. BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNARENEAN.

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, honako hauek:

**27.1.** Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

**27.2.** Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

**27.3.** Halaber, indarrean dagoen araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu, eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri.

b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu, laneko arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsi zuen Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren arabera. Baldintza hori betetzen dela frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita badago, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete ote den.

c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatu.

d) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko V. kapituluan ezarritako kontsulta eta partaidetza nola egikaritu den arautzen duen idatzizko prozedura bat eduki edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren ala ez kontrolatzeko prozedura eduki eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartu.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen edo jardueren zerrenda eduki.

g) Kontratuaren egikaritzapenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso izana, bai eta jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso izana (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak), laneko arriskuen prebentzio planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman izana.

h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak (beharrezkoak balira) eman izanaren egiaztagiria eduki.

i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eman, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

**27.4.** Kontratistak kontratuaren egikaritzapenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta kontratazioa egin duen botere esleitzaileari eman.

**27.5.** Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarrean dauden arauek xedatutakoa bete behar du kontratistak; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere esleitzaileak.

## 28. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZI BATZUK

Egikaritzapenerako baldintza berezi hauek eta kontratuaren klausula espezifikoen 12. klausulan jasota daudenak, kontratistak zein azpikontratistek bete beharko dituzte.

### 28.1. Hizkuntza arloko baldintzak.

**28.1.1.** Botere esleitzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratuaren egikaritzapenari begira, honela ulertuko da "normalean euskara erabiliko da" esaldia:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua egikaritzeko zereginak direla-eta botere esleitzailearekin harremanetan jartzen direnean. Botere esleitzaileak euskara erabiltzen badu kontratuaren egikaritzapenari atxikitako langileekin eta ez badago inor hizkuntza hori ondo ezagutzen duenik, obra egikaritzeko ardura duen enpresak berehala jarriko beharko ditu botere esleitzailearekin hizkuntza horretan jardun ahal izateko behar diren baliabideak edo behar den euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.

b) Idatzizko komunikazioa euskaraz eta gazteleraz izango da, igorleak eta hartzaileak euskara aukeratu ezean.

**28.1.2.** Kontratuaren xedea egikaritzearen ondorioz zerbitzuak eman behar bazaizkie herritarrei, edo harremanak izan behar badira hirugarrenekin edo bestelako herritarrekin, kasuan-kasuan erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntzan egingo dira enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen edo kontratua egikaritu bitartean harremanetan egongo diren pertsonen arteko komunikazioak, ahozkoak zein idatzizkoak. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua egikaritzeaz arduratzen den kontratistak hizkuntza ofizial bietan egingo dizkie jakinarazpen eta komunikazio guztiak pertsona fisikoei zein juridikoei, fakturak eta salerosketako bestelako dokumentuak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Nolanahi ere, behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu kontratistak zerbitzuaren hartzaileek, uneoro, euskaraz jaso ahal izan ditzaten arreta, informazioa eta komunikazioa.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuz esleipendun berria kontratu azkenduari atxikitako langileekin subrogatu behar bada lan-harremanei dagokienez, eta langile horiek ez badaukate hizkuntza-gaitasun nahikorik kontratuko baldintza-agirietan hizkuntzari buruz ezarritako betekizunak betetzeko, euskara kontratuan eskatzen den bezala ezagutzen eta erabiltzen duten langileak hartu beharko ditu kontratista berriak langile subrogatuak ordezteko.

**28.1.3.** Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egiteko kontratuetan, halako lan horiek bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko dira.

**28.2. Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:**

**28.2.1.** Lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea.

**28.2.2.** Baldintza orokorren 26.3. klausulan xedatuta dagoena betetzea.

**28.2.3.** Kontratua egikaritu bitartean, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera dagokion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, eta inola ere ez ordaintzea soldata hori baino gutxiago.

**28.2.4.** Gardentasun instituzionalez lantzea kontratua egikaritzetik eratorritako datu guztiak.

**28.3. Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea:**

**28.3.1.** Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea burutzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo hornidurarenaldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

**28.3.2.** Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan azaldu diren azpikontratistei edo hornitzaileei

ordaindu izanaren frogagiriak, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean (Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan.

**28.4. Ingurumenari buruzkoak:** Baldintza teknikoen pleguaren 8. klausulan jasotakoak.

## 29. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

### 29.1. Konfidentzialtasuna.

Kontratistak eskuratu dezakeen informazio guztia konfidentziala da. Kontratistak eta kontratuaren egikaritzapenari atxikitako langileek ezin dute datu bat ere berentzat erabili, ezta hirugarrenei eman ere kontratazio-organoaren baimenik gabe; gainera, beren esku dauzkaten bitarteko guztiak jarri beharko dituzte informazio guztiaren izaera konfidentziala eta isilpekoa zaintzeko.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horiek eskuratzea, eta jakin ahal diren datuak sekretupean gorde beharko dira.

### 29.2. Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat ulertuko dira pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko eragiketak eta prozedura teknikoak, automatizatuak zein automatizatu gabeak, eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan gertatzen diren datu-konexioak.

Kontratuan datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen badira, SPKLren 25. xedapen gehigarrian xedatuta dagoenari jarraitu beharko zaio. Gainera, kontratistak, azpikontratistak eta egikaritzapenari atxikitako langileek honako bete beharko dute:

a) Tratamenduaren arduradunaren jarraibideak aintzat hartuta erabili behar dituzte datuak.

b) Datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko eta soil-soilik horretarako erabiliko dituzte.

c) Hirugarrenei ez diete datu pertsonalik emango. Hori dela eta, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo haiek biltzen dituzten fitxategiak inori ez helarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperean ez sarbide informatikoez baliatuta, nahiz eta ikusteko soilik izan.

d) Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) 11. artikuluan jasota dagoen konfidentzialtasun-betebeharra bete behar du, baita kontratua desegin ondoren ere, eta honako betebehar hauek ere bai:

1) Lanak hasi baino lehen, datu pertsonalak erabiliko dituzten langile guztien zerrenda ematea kontratuaren arduradunari, langile horien izen-abizenak, zereginak eta lantokia zehaztuta. Kontratua egikaritzen ari direla beste langile bat kontratatu behar bada, beharrizana sortu eta astebete igaro baino lehen beste zerrenda bat ematea. Bai kontratistak bai zerrenda horietako langileek hitzeman behar dute, idazki formal baten bitartez, erabiltzen dituzten datu pertsonalen sekretu profesionala gordeko dutela.

2) Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2. klausulan azaltzen diren segurtasun-neurri gehigarriak ezartzea.

3) Kontratua egikaritzen amaitu ondoren, datu pertsonalak biltzen dituzten euskarri guztiak itzultzea edo datu pertsonalak biltzen dituzten fitxategi guztiak ezabatzea, eta hori akta baten bidez egiaztatzea; akta hori kontratuaren arduradunari emango zaio, hark hala eskatzen baldin badu. Datu eta fitxategiak suntsitzean, ez da geratu behar datuok berreskuratzeko inolako aukerarik.

e) Kontratua egikaritzen ari dela, kontratuaren arduradunak kontrolak egin ditzake segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak har ditzake.

## 30. EGINDAKO LANEN JABETZA, ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK.

### 30.1. Lanen jabetza.

Egindako lanak (fase guztietakoak) botere esleitzailearen jabetzakoak izango dira. Hala bada, botere horrek noiznahi eskatu ahal izango du zerbitzuen zati bat emateko, baldin eta behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak eragozten ez badira.

Halaber, enpresak kontratistari eskatu ahal dio zerbitzuaren aldez aurreko onarpena egin dezala, eta botere esleitzaileak erabakiko du onarpen hori ontzat eman ala ez.

### 30.2. Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzea eta eskaintzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori botere esleitzaileari laga beharra.

Horrenbestez, ekoizpenaren jatorrizko formatuaz gain, jabetza intelektualeko eskubideak edukiko ditu, eta bereziki lortutako obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean zabaltzeko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak. Jabetza intelektualeko eskubide horiek modu esklusiboan edukiko ditu, sinatzen den egunean dauden ustiapen-modu edo euskarri guztien gainetik, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean ezarrita dagoen gehieneko iraunaldian, eta munduko herrialde guzti-guztietan izango dira indarrean, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunpean dago lana edo azken produktua, eta, horrez gain, lan, zirriborro, eskema, aurretiazko dokumentu eta fluxu-diagrama guztiak, eta multzoan hartuta, garapenerako egin diren eta jabetza intelektualaren eta industria-jabetzaren mendean egon daitezkeen lan guztiak ere bai. Enpresa kontratistak Arartekoari informazio zehatza eman behar dio hirugarrenek aurretik baziren ekarpenen gain eduki ditzaketen erreserbei eta legezko eskubideei buruz, halakoak kontratatutako lanaren emaitzan txertatuko badira. Kontratistak nahitaez bermatu beharko du eskubide eta erreserba horien mendean dauden elementu guztien eskuragarritasuna, eta bere gain hartuko ditu horrek ekar ditzakeen kostuak.

Kontratistak bere gain hartu behar du eskubide horien inguruko erreklamazio guztien erantzukizuna, eta bere kontura izango dira ordainketa guztiak, eta, gainera, erreklamazioek sortzen dituzten kalte-galeren ordaina eman beharko dio Arartekoari, ordezkaritza- eta defentsa-gastuak barne.

Kontratuaren xedea aplikazio informatikoak garatzea denean, aurreko paragrafoan azaldu den hirugarrenen erreserbei eta legezko eskubideei buruzko informazioan nahitaez azaldu beharko dira erabilitako iturri guztiak, bertsioak eta jatorria, osagai bakoitzean aplikatutako lizentziak, eta konpilazioan ala egikaritzapenean erabili al diren.

Enpresa kontratistak eta prestatze-lanetan aritu diren pertsonek ezin izango dute erabili lana beren onurarako, ez obraren edo kontratatutako lanaren filmazio, testu, marrazki edo argazkien atalak hirugarren batzuei eman, ez eta osorik ez partzialki argitaratu ere, Arartekoak idatzizko baimena berariaz eman ezean. Era berean, kontratutik eratorri ahal direnen berdin-berdinak edo antzekoak diren jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubiderik erregistratzen ez dira saiatuko, eta eginbehar horrek iraun egingo du kontratua amaitzean ere. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzeagatik sortzen diren kalte eta galeren erantzulea.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Arartekoarekin lankidetzan aritzeko, eta administrazio horrek eskatzen dion dokumentazio guztia sinatu beharko du, Arartekoak klausula honetan aipatzen diren eskubide guztiak eskura ditzan, edo haren alde babes ditzan.

## 31. ZIGORRAK

Kontratistak, legeak behartuta, akatsak konpondu beharko ditu eta kalte eta galerak ordaindu beharko ditu. Gainera, SPKLn edo baldintza orokorren 38. klausulan xedatuta dagoenaren arabera kontratua suntsiaraz daiteke. Hori guztia gorabehera, kontratazio-organoak kontratistari zehapenak ezarri ahal izango dizkio honako arrazoi hauengatik:

### 31.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak.

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1. klausulan azaltzen diren ez-betetzeak: klausula horretan azaltzen diren zenbatekoak.

b) Epe osoa edo epe partzialak berandu betetzea: SPKLren 193.3. eta 193.4. artikuluetan azaltzen diren zenbatekoak, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 14.2. klausulan besterik azaltzen bada.

c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontuaren % 1 gutxienez, eta % 10 gehienez, ez-betetzearen larritasunaren arabera, eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 13.1.4. klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: gehienez ere azpikontratuaren zenbatekoaren % 50.

e) Baldintza orokorren 28.3. klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: berandutzen den egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontuaren % 0,01 izango da.

f) Eskaintzen bitartez hartu diren eta balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontuaren % 1 gutxienez, eta % 10 gehienez, ez-betetzearen larritasunaren arabera, eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

g) Kontratuaren klausula espezifikoen 12 klausulan azaltzen diren ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak ez betetzea (xede horretarako, ez-betetzea egin dela joko da baldin eta soldatak ordaindu ez badira edo behin eta berriz berandu ordaindu badira edo hitzarmen kolektiboetan ezarrita daudenak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatu badira modu larrian eta doloz): kontratuaren prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontuaren % 0,5 gutxienez eta % 10 gehienez, ez-betetzearen larritasunaren arabera, eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

h) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea, plan hori nahitaezkoa denean: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontuaren 5.000,00 euro bakoitzeko euro bat izango da.

**31.2. Prozedura.**

Kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da zehapenak ezarri ala ez, eta jardun hauek egin beharko dira hori erabakitzeko:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, ikusi diren ez-betetzeak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatuz.

b) Kontratistari entzunaldia eman bost (5) egun baliodunko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

c) Kontratazio-organoaren ebazpena.

d) Zenbatekoak biltzea, guztizko edo zatikako ordainketa gisa kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik kenduz, edo, bestela, aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira, eratu den bermetik kenduz.

## 32. PREZIOA ORDAINTZEA

Baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

### 32.1. Emandako edo egikaritutako zerbitzuen ziurtapena.

**32.1.1.** Kontratistak kontratuaren klausula espezifikoen 20.7.2. klausulan aipatutako erregistroan aurkeztu beharko d(it)u emandako zerbitzuen ziurtagiria(k), datu hauek zehaztuta:

a) Espedientearen kodea.

b) Kontratistaren izena edo sozietatearen izena eta IFZ.

c) Emandako edo egikaritutako zerbitzuen zerrenda balioetsia, itundutako prezioaren edo prezioen arabera (BEZik gabe).

d) Azpikontratistek egikaritutako zerbitzuen datuak: azpikontratisten izenak, egindako lana, itundu diren eta ordainketa-epearekin zuzeneko zerikusia duten baldintzak.

e) Zerbitzuen epealdia (ziurtagiria zati batekoa izatekotan).

**32.1.2.** Epea eta baldintzak.

Epe eta baldintza hauen arabera aurkeztu beharko dira:

a) Klausula espezifikoen 5.2. klausulak prezioaren ordainketa bakarra ezartzen badu: ziurtagiri oso bat aurkeztuko da, kontratuaren egikaritzapena amaitu eta hogeita hamar (30) eguneko epean.

b) Klausula espezifikoen 5.2. klausulak prezioaren ordainketa partzialak ezartzen baditu: ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira, klausula horretan ezarritako aldizkako muga-egun bakoitzetik hogeita hamar (30) eguneko epean.

### 32.2. Adostasuna eta fakturaren erregistroa.

Kontratuaren arduradunak faktura erregistratu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan aurkeztu behar du zerbitzuen ziurtagiria.

Kontratistak faktura aurkeztuko du kontratuaren klausula espezifikoen 20.7.2. klausulan adierazitako erregistroan, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarrita dagoenaren arabera, hogeita hamar (30) eguneko epean, zerbitzua eman den datatik aurrera.

### 32.3. Ordainketa

Obra-ziurtagiria onetsi eta hogeita hamar (30) eguneko epean ordaindu beharko du botere esleitzaileak prezioa. Ordainketa egitean berandutuz gero, berandutze-interesak ordaindu beharko zaizkio kontratistari, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitzen den egunetik aurrera, bai eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legean (Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) ezarritakoarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, kontratistak emandako zerbitzuen ziurtagiria(k) eta faktura(k) aurkeztu ondoren hasiko da zenbatzen interesak sortzeko epea. Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7.2. klausulan azaltzen den erregistroan aurkeztu behar dira. Kontratistak ez badu betetzen fakturak administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar (30) egun igarotzen diren arte, faktura dagokion erregistroan aurkezten den egunetik aurrera; betiere, botere esleitzaileak ez badu fakturari buruzko onespenik eman, eta ez badu, kasuan kasu, haren ordainketarik egin.

Kontratistak elektronikoki egin eta igorri beharko ditu fakturak, Arartekoaren fakturazio elektronikoaren zerbitzuaren bidez. Fakturak elektronikoki egitea eta igortzea ez da nahitaezkoa izango fakturaren zenbatekoa, BEZa barne, 5.000,00 euro edo gutxiago denean. Hala ere, faktura elektronikoa egin eta igorri beharko dute abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aipatutako entitateek, baldin eta faktura Arartekoari emandako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik bada.

## 33. KONTRATUA ALDATZEA.

## 33.1. Baldintzak

Kontratua egin ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango du, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren helburua lortzea xede dutenak.

## 33.2. Prozedura.

**33.2.1.** Kontratua aldatzeko prozeduraren barruan honako jarduera hauek egin beharko dira betiere:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, argi zehaztuta badago zenbat unitatek osatzen duten kontratuaren xedea:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak zehaztuta, aldaketaren garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboa, aldaketaren inguruko gorabeherak eta haien egiaztapen objektiboa.

2) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3) Kontratistaren entzunaldia bost (5) egun balioduneko epean.

4) Proiektuaren edo zehaztapen teknikoen idazlearen entzunaldia, baldin eta horiek kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek prestatu baditu, hiru (3) egun balioduneko epean.

5) Txosten juridikoa.

6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egindako jakinarazpena.

7) Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere.

8) Aldaketaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea kontratua erregulazio bateratuari

atxikita badago (salbu eta zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotako bat bada), eta aldaketa SPKLren 205.2. artikuluko a) eta b) letretako kasuetako batengatik egin bada.

b) Unitate-prezioen araberako segidako traktuko kontratuak, kontratua egitean ez bada argi zehaztu guztira zenbat unitatek osatzen duten prestazioa:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, hasieran aurreikusitakoak baino benetako premia handiagoak daudela justifikatzen duena eta haien zenbateko ekonomikoa zehazten duena.

2) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3) Kontratistaren entzunaldia bost (5) egun balioduneko epean.

4) Txosten juridikoa.

5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egindako jakinarazpena.

6) Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere.

**33.2.2.** Kasu hauetan, gainera, beste jarduera hauek ere egin beharko dira:

a) Kontratuaren prezioa edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontua aldatzen bada, kontratistak berriro doitu beharko du bermea, ebazpena jakinarazi eta hamabost (15) egun balioduneko epean.

b) Arartekoak aldaketa baimentzea, bi inguruabar hauek gertatzen direnean:

1) Sektore publikoko kontratuen araudian adierazitakoa baino iraupen luzeagoa duten kontratuak, kasu jakinetarako, edo, orokorrean, kategoria jakin batzuetarako.

2) Aldaketak kontratua suntsiaraztea dakarrenean.

c) Aldaketa administrazio-klausula partikularren pleguan aurreikusita ez badago, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egitea, baldin eta kontratuaren prezioa edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontua 6.000.000 euro edo gehiago bada, eta aldaketak kontratuaren % 20 baino gehiago aldatzea badakar. Zenbait aldaketa elkarren segidan adosten badira, guztiak kontuan harturik kalkulatuko da ehunekoaren aldaketa.

**32.2.3.** Betiere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

## 34. AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 15.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, kontratistak prestazioaren egikaritzapenaren zati bat azpikontratatu ahal izango du, klausula horretan ezartzen diren mugen barruan eta klausula honetan xedatuta dagoenaren arabera.

Baldin eta kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zatiren bat, bere gain hartuko du botere esleitzailearen aurrean kontratua egikaritzearen erantzukizun osoa, baldintza-agiri honetan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoarekin bat etorrita, gizarte- edo lan-betebeharrak betetzea barne hartuta.

### 34.1. Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala osatu badu baldintza orokorren 13.3.2.1. klausulan azaltzen den moduan, eta azpikontratazioa atal horretan zehazki azaltzen diren baldintzen arabera egin nahi badu: kontratuaren arduradunari igorri beharko dio XI. ERANSKINean ageri den deklarazioa, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak egikaritzen hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago, gutxienez.

b) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala osatu badu baldintza orokorren 13.3.2.1. klausulan azaltzen den moduan, baina azpikontratazioa EKABen ageri direnez bestelako baldintza batzuetan egin nahi badu, edo aipatu den apartatua bete ez badu: kontratuaren arduradunari igorri beharko dio XI ERANSKINean ageri den inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak egikaritzen hasi baino bost (15) egun baliodun lehenago, gutxienez.

### 34.2. Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

Kontratistak egiaztatu egin beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin itundutako ordainketa-baldintzak bete dituela; hain zuzen ere, baldintza horiek SPKLren 216. artikuluan ezarrita dauden mugak errespetatu behar dituzte, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatuta dagoenaren arabera, eta gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 32.1.1. klausulako d) letran xedatuta dagoenaren arabera.

## 35. KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA

### 35.1. Kontratua lagatzea

#### 35.1.1. Kasuak

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9. artikuluan aurreikusita dagoen ABEEren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, kontratua honako kasu hauetan laga ahal izango da:

a) Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 2.2. artikuluaren arabera enpresa kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.

b) Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan, edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi bazaio birfinantzaketarako akordio bat edo hitzarmenaren proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko negoziazioak hasi direla, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

c) Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehenago erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

#### 35.1.2. Prozedura

a) Kontratistak kontratuaren arduradunari idazki bat igorriko dio, eta horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

1. Kontratua lagatzea eskatzeko bidea ematen duen inguruabarra dagoela egiaztatzeko agiriak.

2. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2. artikuluko c) letran jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.

b) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

c) Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 bete behar den ala ez dioena, eta bete behar izanez gero, betetzen den ala ez dioena. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasota dauden mugak errespetatzen direla azaldu beharko du.

d) Txosten juridikoa.

e) Kontratistak lagapena formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea.

f) Kontratazio-organoaren ebazpena, lagatzeko baimena emateko eta kontratistari jakinarazteko.

g) Kontratua lagatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

h) Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

i) Arartekoaren esku-hartzean lagatzaile denak bermea jartzea. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

**35.1.3**. Baldintzak.

**35.1.3.1.** Kontratazio-organoak lagapena baimendu dezan, baldintza hauek bete behar dira betiere:

1. SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuan jasotako baldintzak betetzea.

2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria ez izatea.

3. Lagapenak merkatuan lehiaren murrizketa ez ekartzea.

**35.1.3.2.** Ez da baimenduko kontratuaren lagapena egitea, kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

**35.1.3.3.** Kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu beharko da.

**35.1.3.4.** Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

**35.2. ABEE osatzen duten kideak aldatzea.**

**35.2.1.** ABEEren osaeraren aldaketak berekin badakar enpresen kopurua handitzea, hura gutxitzea edo enpresa bat edo batzuk beste batzuekin ordeztea, honela jokatuko da:

1. ABEE kontratistak kontratuaren arduradunari idazki bat igorriko dio, eta horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

i. ABEEren osaera aldatzeko bidea ematen duten inguruabarren justifikazioa.

ii. ABEEk, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimeneko edo sailkapeneko baldintzak betetzen dituela eta ABEE osatu behar duten enpresek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela dioten egiaztagiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearazi dela dioena.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak ABEE osaera berriarekin formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEren osaera aldatzeko eta ABEE kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.

7. ABEEren osaera aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

8. ABEE eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEk Arartekoan beste berme bat jartzea. ABEEk lehenago emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta ABEE berria formalki eratuta eduki arte.

**35.2.2.** ABEE osatzen duen enpresa baten edo osatzen duten enpresa batzuen bategite, zatiketa nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea dela-eta sozietate xurgatzailea, bategitearen emaitza dena, banantzearen onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ez badira ABEE osatzen duten enpresetakoak, baldintza orokorren 35.2.1. klausulan azaltzen diren tramiteak beteko dira, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearaztearen baldintza izan ezik.

**35.2.3.** ABEEko enpresa bat konkurtso-egoeran deklaratzen bada, likidazio-fasea irekita egonda ere, SPKLren 69.9. artikuluko c) letran xedatuta dagoenari jarraituko zaio, SPKLren 212.5. artikuluak kontratua egikaritzeko berme gehigarri nahikoak emateari buruz xedatzen duenarekin bat etorrita. Kasu honetan, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak kontratuaren arduradunari idazki bat igorriko dio, ABEEko enpresa bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela egiaztatzen duten agiriekin batera, honako hau eskatzeko:

i. Kontratua egikaritzen jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan ABEEk, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimeneko edo sailkapeneko baldintzak betetzen dituela dioten frogagiriak.

ii. Kontratua egikaritzen jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoeran daudenak barnean direla.

2. Baldintza orokorren 35.2.1. klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3. puntua alde batera utzita) azaltzen diren izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak ebazten badu

ABEEk kontratua enpresa guztiekin (konkurtso-egoeran daudenekin ere) egiten jarrai dezala, ABEE kontratistak kontratua behar bezala egikaritzeko berme gehigarri nahikoak eman beharko ditu, hain zuzen ere kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazi dituenak.

## VI. KONTRATUA AZKENTZEA

### 36. BETETZEA: ENTREGATZEA, OBRAK JASOTZEA ETA LIKIDATZEA.

#### 36.1. Entregatzea eta dena behar bezala bete den egiaztatzea.

Kontratuaren xede diren prestazioak preskripzio tekniko partikularren pleguan ezarritako zehaztapenen arabera eta baldintza orokorren 8. klausulan azaltzen diren epeen arabera entregatuko dira.

Preskripzio tekniko partikularren pleguan besterik aurreikusten ez bada, entregatzeko data honako hau izango da:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak kontratuaren arduradunari preskripzio tekniko partikularren pleguan zehaztutako moduan eta euskarrian entregatzen dizkion eguna.

- Segidako traktuko kontratuetan: kontratuaren iraupen-epe osoa amaitzen den eguna.

Entrega-datatik aurrera hamabost (15) egun balioduneko epean gehienez ere, Ararteko prentsa- eta komunikazio-arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, itundutako baldintzak behar bezala bete direla ziurtatzeko, eta egiaztapen-txostena egingo du, honako hau adieraziz:

a) Bete direla ondorioztatzen badu: Kontratua onar dadila proposatuko du eta jasotzeko data bat ezarriko du —kontratuaren klausula espezifikoen 16.2. klausulan azaltzen den epearen barruan—, eta txostena kontratistari igorriko dio. Gainera, espedientearen egiaztapen fisikoa egin behar bada, Ararteko erakundearen Aurrekontu, Ekonomia eta Langileak Kudeatzeko organoari ere igorriko dio.

b) Bete ez direla ondorioztatzen badu: Ikusitako ez-betetzeak edo akatsak identifikatuko ditu, eta horiek konpontzeko jarraibideak emango ditu. Kontratistari txostena igorriko dio, eta hori zein epetan

konpondu behar den zehaztuko du; halaber, bost (5) egun balioduneko epean txostenaren ondorioen aurka idatzizko erreklamazioa aurkeztu ahal dela azalduko dio.

Kontratistak epe horretan erreklamaziorik egiten ez badu, ulertuko da jarraibideekin ados dagoela, eta ikusi diren akatsak konpondu beharko ditu.

Kontratistak epe horretan erreklamazioa egiten badu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoari igorriko zaizkio, eta organo horrek hamabost (15) egun balioduneko epean ebazpena emango du.

### 36.2. Akatsak zuzentzea

**36.2.1.** Konpontzeko epea igarotakoan, gehienez ere hamar (10) eguneko epean, kontratuaren arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, emandako jarraibideak behar bezala bete direla ziurtatzeko, eta beste egiaztapen-txosten bat egingo du:

a) Behar bezala bete direla ondorioztatzen badu: baldintza orokorren 36.1. klausulako a) apartatuan azaltzen diren jarduketak egingo ditu.

b) Bete ez direla ondorioztatzen badu: ikusi diren ez-betetzeak edo akatsak identifikatuko ditu, eta egiaztapen-txostena kontratistari eta kontratazio-organoari igorriko dio, zehapenak ezartzeko proposamenarekin batera. Horrez gain, hala badagokio, inguruabarrak kontuan hartuta, honako hau egiteko proposamena ere helaraziko dio:

1) Kontratua suntsitzeko prozedura hastea, eta, horrez gain, bermea konfiskatzea eta kontratista behartzea botere esleitzaileari kalte eta galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

2) Konpontzeko beste epe bat ematea eta zehapena ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren edo kontratua mugatzen duen gehieneko aurrekontuaren % 25.

Azpikontratistak akatsak ez baditu konpontzen emandako bigarren epean, kontratua suntsituko da. Horrez gain, bermea konfiskatuko da, eta kontratista

behartuko da botere esleitzaileari kalte eta galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

**36.2.2.** Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan akatsak konpontzeko eta okerrak zuzentzeko, SPKLren 315. artikuluari jarraituko zaio.

**36.3. Onarpena.**

Betiere, prestazioa onartzen den arte, kontratista itundutako baldintzak behar bezala betetzeaz arduratuko da, baina kontratuaren arduradunak aldeko txostena egin edo zerbitzu partzialen egiaztapenak onartu arren, ez da inolako inguruabar salbuesle edo eskubiderik sortuko.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu itundutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratua onartuko da.

Onarpen-ekitaldian kontratuaren arduraduna eta kontratistaren ordezkaria egongo dira, eta espedientearen egiaztapen fisikoa egin behar bada, Esku-hartze Orokorraren ordezkari bat ere bai. Ekitaldirako deialdia kontratuaren arduradunak egin beharko du, eta bost (5) egun baliodun lehenago igorri. Onarpen-ekitaldiaren akta egingo da bi aletan, eta akta hori sinatu beharko dute bertaratu diren guztiek.

**36.4. Likidazioa.**

Kontratuaren izaerarengatik hala komeni delako edo kontratuaren klausula espezifikoetan SPKLren 309.1. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa berariaz jaso delako, hogeita hamar (30) eguneko epean, onarpen- edo adostasun-aktaren datatik aurrera, kontratazio-organoak likidazioa egitea erabakiko du, jakinaraziko du, eta, hala badagokio, kontratistari ordainduko zaio, baldin eta faktura onarpenaren ondoko data batean aurkeztu ez bada.

Kontratistak onarpenaren eguna baino geroago aurkezten badu faktura, faktura kontratuaren klausula espezifikoen 20.2.5. klausulan adierazitako erregistroan aurkezten den egunean hasiko da zenbatzen hogeita hamar (30) eguneko epea.

Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea edukiko du, abenduaren 29ko 3/2004 Legean (Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) jasotakoaren arabera.

## 37. BERMEALDIA ETA BERMEA ITZULTZEA.

### 37.1. Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 16.4. klausulan ezarritako bermealdia hasiko da kontratua onartu eta hurrengo egunean. Epe horren barruan, kontratistak nahitaez konpondu beharko ditu, bere kontura, egindako lanetan dauden akatsak, baldin eta epe horretan halako akatsak daudela ikusi eta idatziz jakinarazi bada.

Akatsak behar bezala eta garaiz erreklamatu ondoren kontratistak ez baditu horiek zuzentzen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 100. artikuluan ezarritako nahitaez betearazteko bitartekoak erabili ahal izango ditu botere esleitzaileak.

Bermealdia amaitu eta botere esleitzaileak ez badu akatsak konpontzeko eskatzen behar bezala eta garaiz, kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik egindako prestazioarengatik. Nolanahi ere, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan obra-proiektuak egiteko kontratuetarako ezarrita dagoena bete beharko da.

### 37.2. Bermea itzultzea.

**37.2.1.** Kontratuaren klausula espezifikoen 16.4. klausulan bermealdirik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakiaren barruan bermea itzultzeko edo ezeztatzeko agindua jasoko da.

**37.2.2.** Kontratuaren klausula espezifikoen 16.4. klausulan bermealdia ezartzen ez bada, epe hori igaro ondoren honako hau egingo da:

a) Bermealdian ez bada erreklamaziorik aurkeztu zegokion epean eta moduan, edo, halakoak aurkeztu badira ere, konpondu egin badira: Kontratazio-organoak bermea itzultzeko edo ezeztatzeko ebazpena emango du.

Ebazpena bermealdia amaitu eta gehienez ere bi (2) hilabeteko epean eman eta jakinaraziko zaio kontratistari, eta Ararteko erakundearen Aurrekontu, Ekonomia eta Langileak Kudeatzeko organoari jakinarazi zaio.

b) Berme-epean erreklamazioak egin badira behar bezala eta garaiz, baina kontratistak horiek konpondu ez baditu: kontratuaren arduradunak kontratistari bidezkoak diren

jarraibideak emango dizkio, akatsak behar bezala konpon ditzan. Horretarako epe bat emango dio. Epe horretan, kontratistak lanen kalitate teknikoaren eta SPKLren 311. artikuluko 2. apartatuan azaldutakoaren arabera egindako prestazio eta zerbitzuen arduradun izaten jarraituko du, baina bermealdia luzatzeagatik ez du inolako diru-kopururik jasoko.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak xede horrekin emandako epean ezarritako jarraibideak, bermea konfiskatuko da.

**37.2.3.** Kontratua amaitzeko epea amaitu eta urtebete igarota, enpresa kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, ez bada onarpen formalik ez likidaziorik izan, bermeak itzuliko dira, edo ezereztu egingo dira, beste luzapenik gabe, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurotik beherakoa bada eta kontratista ETE bat bada, SPKLren 11.5. artikuluan jasotakoaren arabera definituta, urtebeteko epea sei (6) hilabetera laburtuko da.

## 38. EBAZPENA.

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan, 294. artikuluko c), d) eta f) letretan, herritarren aldeko prestazio zuzenak dakartzaten zerbitzuen kontratuetan, eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 18. klausulan jasotakoez gain, honako hauek dira kontratua suntsitzeko arrazoiak:

a) Botere esleitzailearen zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenak oztopatzea, SPKLren 190. artikuluko bigarren paragrafoan xedatuta dagoenaren arabera.

b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

VII. GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA

## 39. GORABEHERAK.

### 39.1. Kontratazio-organoaren prerrogatibak.

Administrazio-kontratuak interpretatzeari, betetzearen inguruko zalantzei, aldaketak egiteari, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzeari, egikaritzapena eteteari, suntsiarazteari eta suntsiarazpenaren ondorioei buruz gertatzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hari hilabete bateko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

### 39.2. Prozedura.

Kasu zehatzetarako baldintza-agiri honetan eta sektore publikoaren kontratuen araudian ezarrita dagoena bazter utzita, botere esleitzailearen eta kontratistaren artean kontratua egikaritzeari eta amaitzeari buruz sortzen diren gorabehera guztiak espediente kontraesankorraren bitartez tramitatuko dira; espediente horren barruan honako jarduketa hauek egingo dira:

a) Botere esleitzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Kontratistaren entzunaldia bost (5) egun balioduneko epean.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Hala badagokio, aholkularitza juridikoaren eta Ararteko erakundearen Aurrekontu, Ekonomia eta Langileak Kudeatzeko organoaren txostena.

e) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek justifikatzen ez badute edo gorabeheren izaerak hala eskatzen ez badu, prozedura hau tramitatzeak ez du kontratua geldiarazterik ekarriko.

## 40. EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

Kontratazioaren arloan, SPKLren 44.1. artikuluan aurreikusitako egintzen aurrean, SPKLren 44.2. artikuluan jasotako kontratuei buruz errekurtso berezia ebazteko eta behin-behineko neurriak hartzeari buruzko erabakiak hartzeko organo eskuduna Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuko Errekurtsoen Administrazio Organoa da.

SPKLren 44.1. artikuluan jasota ez dauden zerbitzu-kontratuei buruzko egintzen aurka urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 112., 121. eta 123. artikuluetan ezarritako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

## I. ERANSKINA

## EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARREKO FORMULARIO ARAUTUA (EKAB)

### AURKIBIDEA

Honako formulario hau honako zati eta sekzio hauek ditu:

**I. zatia.** Kontratazio-prozedurari, botere esleitzaileari edo erakunde esleitzaileari buruzko informazioa.

**II. zatia.** Operadore ekonomikoari buruzko informazioa (enpresa lizitatzailea edo hautagaia).

- A sekzioa: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
- B sekzioa: Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa.
- C sekzioa: Beste erakunde batzuen gaitasunaz baliatzeari buruzko informazioa.
- D sekzioa: Azpikontratisten gaineko informazioa, operadore ekonomikoa haien gaitasunean oinarritzen ez denean

**III. zatia.** Esklusio-irizpideak:

- A sekzioa: Zigor-kondenei buruzko zioak.
- B sekzioa: Zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeari buruzko zioak.
- C sekzioa: Kaudimenik ezari, interes-gatazkei edo hutsegite profesionalei buruzko zioak.
- D sekzioa: Botere edo erakunde esleitzailearen estatu kideko legeria nazionalean ezarrita egon daitezkeen beste esklusio-zio batzuk.

**IV. zatia.** Hautaketa egiteko irizpideak:

- α Sekzioa: Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen globala.
- A sekzioa: Egokitasuna
- B sekzioa: Kaudimen ekonomikoa eta finantza-kaudimena.
- C sekzioa: Gaitasun teknikoa eta profesionala.
- D sekzioa: Kalitatea bermatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak

**V. zatia.** Hautagai kualifikatuen kopurua murriztea.

**VI. zatia.** Azken adierazpenak.

## I. zatia: kontratazio-prozedurari, botere esleitzaileari edo erakunde esleitzaileari buruzko informazioa

### KONTRATAZIO-PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA [1]

| **Kontratugilearen identifikazio-datuak** | **Erantzuna** |
|---|---|
| Izena: | ARARTEKO |
| **Zer kontratazio-mota da?** | **Erantzuna** |
| Kontratazioaren titulu edo deskribapen laburra: | ARARTEKO ERAKUNDEAREN MEZULARITZA-ZERBITZUA |
| Botere edo erakunde esleitzaileak espedienteari esleitu dion erreferentzia-zenbakia: | 1/2019/PA |

## II. zatia: operadore ekonomikoari buruzko informazioa

### A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

| **Identifikazioa** | **Erantzuna** |
|---|---|
| Izena: | [ ] |
| BEZ zenbakia, hala dagokionean [2]:<br><br>BEZ zenbakia eduki ezean, adierazi, eskatuz gero, nortasun nazionala adierazteko beste zenbaki bat. | [ ]<br><br>[ ] |
| Posta-helbidea: | [...] |
| Harremanetarako pertsona edo pertsonak [3]:<br>Telefono-zk.:<br>Helbide elektronikoa:<br>Helbide elektronikoa (web-orriaren helbidea, hala badagokio): | [...]<br>[...]<br>[...]<br><br>[...] |

[1] *Europako Batasunaren Egunkari Ofizialean lizitaziorako deialdia argitaratu ezean (publizitatedun prozedura negoziatua), botere esleitzaileak emango du informazio hori*.

[2] *Espainiako Estatuko herritarrek eta enpresek IFZ adierazi behar dute; Espainiako Estatuan bizi diren atzerriko atzerritarrek, AIZ; EBko estatu kide bateko enpresek, IFK-BEZ edo Europar Batasunaren barruko IFK, edo, hala dagokionean, DUNS zenbakia; Europar Batasunetik kanpoko enpresa atzerritarrek, hots, EBko estatu kide ez den estatu batekoek, DUNS zenbakia adierazi behar dute.*.

[3] *Harremanetarako pertsonei buruzko informazioa behar den guztietan errepikatu behar duzu*.

| Informazio orokorra | Erantzuna |
|---|---|
| Operadore ekonomikoa enpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina al da?[4] | ☐ Bai ☐ Ez |
| **Soilik kontratazio erreserbatua baldin bada**[5]: operadore ekonomikoa tailer babestua edo gizarte-enpresa al da, edo enplegu babestuko programen esparruan betearaziko du programa?<br><br>**Erantzuna baiezkoa bada:**<br>Zein da langile desgaituen edo gizarte-egoera ahulean dauden langileen ehunekoa?<br>Beharrezkoa baldin bada, adierazi zer kategoriatan dauden langile desgaituak edo gizarte-egoera ahulean dauden langileak. | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>[…]<br><br>[…] |
| Hala dagokionean, operadore ekonomikoa operadore ekonomiko baimenduen zerrendan al dago, edo ziurtagiri baliokidea al du? (adibidez, aldez aurretik sailkatzeko sistema nazionalaren esparruan? | ☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dagokio |

[4]*Ikus Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko gomendioa, mikroenpresen, enpresa txikien eta ertainen definizioari buruzkoa, (2003-05-20ko 124. AO L, 36. orria). Datu hori estatistikak egiteko soilik eskatzen da:.*
*Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago; urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez ere 2 milioi euro*
*Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago; urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez ere 10 milioi euro*
*Enpresa ertaina: ez da mikroenpresa, ezta enpresa txikia ere; 250 pertsonari baino gutxiagori lana ematen die, eta, gehienez ere, 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena dauka, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra dauka.*

[5] *Ikus administrazio-klausula zehatzen agiriaren karatulako 20.7 klausula.*

| | |
|---|---|
| **Erantzuna baiezkoa bada:**<br><br>**Erantzun itzazu atal honetako galderak, B sekzioa eta, hala dagokionean, C sekzioa. Hala dagokionena, bete ezazu V. zatia eta, edonola ere, bete eta sina ezazu VI. zatia.** | |
| a) Adierazi ezazu zerrendaren edo ziurtagiriaren izena, edo inskripzio edo ziurtapen egokiaren zenbakia: | a) […] |
| b) Inskripzio-ziurtagiria edo ziurtapena formatu elektronikoan eskuragarri baldin badaude, adierazi honako hauek: | b) (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […] |
| c) Adierazi inskripzioa edo ziurtapena zer erreferentziatan oinarritzen den eta, hala dagokionean, zerrenda ofizialean lortutako sailkapena [6]: | c) […] |
| d) Inskripzioan edo ziurtapenean jaso al dira eskatutako hautaketaren irizpide guztiak? | d) ☐ Bai ☐ Ez |
| **Ezezkoa baldin bada:**<br><br>**Adierazi, gainera, IV. zatian falta den informazioa; A, B, C edo D sekzioak, hala dagokionean.** | |
| ***Iragarki egokian edo kontratazio-agirietan HALAKORIK ESKATZEN BALDIN BADA (bestela ez):*** | |
| e) Operadore ekonomikoak Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zergen ordainketari buruzko ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango du; edo informazioa eman ahal izango du, botere esleitzaileak edo erakunde esleitzaileak ziurtagiria zuzenean eta doan edozein estatu kidetako datu-base nazional baten bitartez lor dezan? | e) ☐ Bai ☐ Ez |
| Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi honako hau: | (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […] |

[6] *Erreferentziak eta sailkapena, hala dagokionean, ziurtapenean daude.*

| Parte hartzeko modua | Erantzuna |
|---|---|
| Operadore ekonomikoa kontratazio-prozeduran parte hartzen ari da, beste batzuekin batera[7]? | ☐ Baí ☐ Ez |
| **Baiezkoa baldin bada, ziurtatu gainerako interesdunek bereizitako EKAB formularioa aurkeztu dutela[8].** | |
| **Erantzuna baiezkoa bada:**<br>a) Adierazi operadore ekonomikoak zer eginkizun betetzen duen taldean (arduradun nagusia, ataza zehatzen arduraduna, etab.):<br>b) Adierazi kontratazio-prozeduran batera parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoak:<br>c) Hala dagokionean, talde parte-hartzailearen izena: | a): [...]<br>b): [...]<br>c): [...] |
| **Sortak** | **Erantzuna** |
| Hala dagokionean, adierazi operadore ekonomikoak zer sortari lotu nahi dion edo dizkion sorta edo sortak: | [] |

## B: OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO

**Hala dagokionean, adierazi operadore ekonomikoa ordezkatzeko baimenduta dauden pertsonak, kontratazio-prozedura honen ondorioetarako.**

| Ordezkaritza izanez gero. | Erantzuna |
|---|---|
| Izen-abizenak :<br>Jaiotza-eguna eta lekua ere bai, hala badagokio : | [...];<br>[...] |
| Zer kargutan edo zer gaitasunetan jarduten duen : | [...] |
| Posta-helbidea : | [...] |
| Telefono-zk.: | [...] |

[7] *Bereziki, talde, partzuergo, partaidetzako enpresa edo antzeko entitate batean (alde baterako enpresa-elkartea).*

[8] *Enpresa bi edo batzuk enpresa-talde batean aurkezten badira, edo alde baterako enpresa-taldea eratzeko konpromiso formalaren mende aurkezten badira, esleipendunak baldin badira, II., III., IV. eta V. zatietan jasota dagoen enpresa bakoitzak EKAB bete eta sinatu beharko du.*

| | |
|---|---|
| Helbide elektronikoa : | [...] |
| Beharrezkoa baldin bada, adierazi ordezkariei buruzko informazio zehatza (moduak, helmena, xedea...) | [...] |

## C: BESTE ERAKUNDE BATZUEN GAITASUNAZ BALIATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

| **Errekurtsoa** | **Erantzuna** |
|---|---|
| Operadore ekonomikoak [9] erabiltzen al du beste erakunde batzuen gaitasuna, IV. zatiko irizpideak eta V. zatian (behean) jasotako irizpideak eta arauak (hala dagokionean) betetzeko? | ☐ Bai ☐ Ez |

**Erantzuna baiezkoa baldin bada, zati honetako A eta B sekzioetan eta III. zatian eskatutako informazioan jaso den erakunde bakoitzak EKAB formulario bat (bereizita) bete behar du, bai eta sinatu ere.**

**Teknikariak edo erakunde teknikoak ere puntu honetan adierazi behar dira, baldin eta operadore ekonomikoaren enpresan zuzenean sartuta ez badaude; eta, bereziki, kalitate-kontrolaren arduradunak. Obra-kontratua denean, operadore ekonomikoak obra gauzatzeko dituen teknikariak edo erakunde teknikoak ere adierazi beharko dira.**

**Operadore ekonomikoak baliatuko dituen gaitasun egokiari edo egokiei dagokio(e)nez, behar den guztietan jaso behar da IV. eta V. zatietan eskatutako informazioa, erakunde horretako bakoitzari buruzkoa [10].**

## D: AZPIKONTRATISTEN GAINEKO INFORMAZIOA, OPERADORE EKONOMIKOA HAIEN GAITASUNEAN OINARRITZEN EZ DENEAN

**Sekzio hau ez da bete behar, administrazio-klausula zehatzen pleguko karatularen 15.2 klausulan sekzio hau betetzeko eskatu ezean.**

| **Azpikontratazioa** | **Erantzuna** |
|---|---|
| Operadore ekonomikoak kontratuaren zatiren bat hirugarrenei azpikontratatzeko asmorik al du? | ☐ Bai ☐ Ez<br>**Baiezkoa baldin bada, eta datua ezagutuz gero,** zerrendatu aurreko azpikontratistak: [...] [11] |

[9] *Gaitasuna kaudimena da*

[10] *Esate baterako, kalitate-kontrolaz arduratzen diren erakunde teknikoak baldin badira: IV. zatia, C sekzioa, 3. puntua.*

[11] *Administrazio- klausula zehatzen pleguko karatularen 15.2 klausulan eskatutako datuak bete behar dira.*

| |
|---|
| **Informazio hori eskatzen baldin bada, sekzio honetan eskatu denarekin batera, zati honetako A eta B sekzioetan eta III. zatian eskatutako informazioa ere eman behar da, azpikontratista bakoitzeko, edo azpikontratisten kategoria bakoitzeko.** |

## III. zatia: eskaintza baztertzeko arrazoiak

## A: ZIGOR-KONDENEI BURUZKO ZIOAK

| |
|---|
| **2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 1. zenbakian honako zio hauek ezarri dira, eskaintza baztertzeko:**<br>Erakunde delitugile batean parte hartzea [12].<br>Ustelkeria [13].<br>Iruzurra [14].<br>Terrorismo-delituak edo terrorismo-jarduerei lotutako delituak [15].<br>Kapitalak zuritzea edo terrorismoa finantzatzea [16].<br>Haurren lana eta gizakien beste salerosketa mota batzuk [17]. |

| **Zigor-kondenei buruzko zioak, 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 1. zenbakian jasotako zioak aplikatzeko xedapen nazionalei jarraituta** [18] | **Erantzuna** |
|---|---|

[12] *Kontseiluaren 2008/841/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluan jaso den definizioaren arabera. (2008ko urriaren 24ko Esparru Erabakia da, delinkuentzia antolatuaren aurkako borrokari buruzkoa; 2008-11-11ko 300. AO L, 42. or. Kontseiluaren 2008/841/JAI Esparru Erabakiaren 2. artikuluan jaso den definizioaren arabera. (2008ko urriaren 24ko Esparru Erabakia da, delinkuentzia antolatuaren aurkako borrokari buruzkoa; 2008-11-11ko 300. AO L, 42. Or.*).

[13] *Europako Erkidegoetako edo Europar Batasuneko estatu kideetako funtzionarioen parte-hartzea duten ustelkeria-egintzen aurkako borrokari buruzko hitzarmenaren 3. artikuluan definituta dagoen bezala (1997-6-25eko 195. AO C,1. or); eta Kontseiluaren 2003/568/JAI Esparru Erabakiaren 1. zenbakiko 2. artikulua (Esparru Erabakia sektore pribatuko ustelkeriaren aurkako borrokari buruzkoa da; 2003-7-31eko 192. AO L, 54. or). Baztertze-zio horretan kontuan hartzen da botere edo erakunde esleitzailearen edo operadore ekonomiaren legeria nazionalean ustelkeriari eman zaion definizioa ere*.

[14]*Europako Erkidegoetako finantza-interesen babesari buruzko hitzarmenaren 1. artikuluan ulertzen den moduan (1995-11-27ko 316. zenbakiko AO C, 48. or)*.

[15] *Kontseiluaren 2002/475/JAI Esparru Erabakian jaso den definizioaren arabera. (2002ko ekainaren 13ko Esparru Erabakia, terrorismoaren aurkako borrokari buruzkoa; 2002-06-22ko 164. AO L, 3. or.). Baztertze-zio horren barne hartzen dira delitua egiteko indukzioa edo konplizitatea, bai eta delitua egiteko saiakuntza ere (esparru erabaki horretako 4. artikuluan jasota dagoen bezala)*.

[16] *Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/60/EE Zuzentarauaren 1. artikuluan jasota dauden bezala (2005eko urriaren 26ko Zuzentaraua, finantza-sistema kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko ez erabiltzeari buruzkoa (2005-11-25eko 309. AO L, 15. or.)*.

[17] *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentarauaren 2. artikuluan jasota dagoen bezala (2011ko apirilaren 5eko Zuzentaraua, gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzkoa, bai eta biktimak babesteari buruzkoa ere). Zuzentarau horrek Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordezten du (2011-4-15eko 101 AO L, 1. or.)*).

[18] *Ondore horietarako, SPKLTBren 60. artikuluko 1. zenbakiko a) letran ezarrita dago honako egoeretako batean dauden pertsonek ezingo dutela sektore publikoarekin kontratatu: «Epai irmo baten bitartez, honako delitu hauek egiteagatik kondenatuta daudenek: terrorismo-deituak, koordinazio kriminaleko talde edo erakunde bat eratzea, edo horrelako talde edo erakunde bateko kide izatea, legez kontrako elkartzea, alderdi politikoak legez kanpo finantzatzea, pertsonen salerosketa, ustelkeria negozioetan, eraginen trafikoa, funtzionario-eroskeria, prebarikazioa, iruzurrak eta funtzionarioek debekatuta duten negoziazioetan eta jardueretan aritzea (...), langileen eskubideen aurkako delituak, bidegabeko eralgitzeak, kapitalak zuritzea, lurralde-antolamenduarekin eta hirigintzarekin lotutako delituak, ingurumena eta ondare historikoa babestea edo lanbidean, ofizioan, industrian edo merkataritzan jarduteko desgaikuntza berezia jaso dutenek. Pertsona juridikoek debekatuta izango dute kontratatzea baldin eta zigor- erantzukizuna badute. Pertsona juridikoek kontratatzeko debekua izango dute, bai eta baldin eta, beraien administratzaileak edo ordezkariak, izatez edo zuzenbidez, karguan edo ordezkari gisa diharduten bitartean, eta kargua utzi arte, letra honetan adierazita dauden egoera horietako batean badaude»*

| | |
|---|---|
| **Operadore ekonomikoari,** edo beraren administrazio-organoko **edozein** pertsonari, zuzendariri, gainbegiraleri edo bera ordezteko, beraren izenean erabakiak hartzeko edo bera kontrolatzeko ahalak dituen norbaiti **epai irmoa ezarri ote diote**, goian adierazitako zioetako batengatik? (betiere, baldin eta epai hori aurreko bost urteetan eman bazen, eta oraindik aplikagarria den baztertze-epea epaian ezarrita badago) | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi honako hau: (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[…] […] […][19] |
| **Baiezkoa bada,** adierazi honako hauek[20]:<br>a) Kondenaren eguna, zein puntu den (1. puntutik 6. puntura) zehaztuta, bai eta epaia ezartzeko zioak ere:<br>b) Kondena jaso zuen pertsonaren identifikazioa []:<br>**c) Kondenan bertan ezarrita baldin badago:** | a) Eguna:[…]; puntua(k): […]; zioa edo zioak: […]<br>b) [ ]<br>c) Baztertze-epearen iraupena […] eta zer punturekin lotuta dagoen […];<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi honako hau: (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[…] […] […][21] |
| Kondena ezarri baldin bada, operadore ekonomikoak neurriak hartu al ditu sinesgarritasuna erakusteko, baztertzeko zio egokia egon arren (autozuzenketa)[22]? | ☐ Bai ☐ Ez |
| **Erantzuna baiezkoa da,** deskribatu neurriak [23]: | […] |

## B: ZERGAK EDO GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOAK ORDAINTZEARI BURUZKO ZIOAK

| **Zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzea** | **Erantzuna** |
|---|---|

[19] *Errepikatu, behar den guztietan.*
[20] *Errepikatu, behar den guztietan.*
[21] *Errepikatu, behar den guztietan.*
[22] *2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 6. zenbakia aplikatzeko xedapen nazionalekin bat etorrita.*
[23] *Azalpenean erakutsi beharko da hartu diren neurrien egokitasuna, egin den delitu mota aintzat hartuta (delitu behin gertatu bada, edo behin baino gehiago, edo sistematikoak diren, etab.).*

| | | |
|---|---|---|
| Operadore ekonomikoak bete al ditu **zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko betebehar guztiak**, bai ezarrita dagoen herrialdean, bai botere esleitzailearen herrialdean [24], operadore ekonomikoa dagoen herrialde bera ez denean? | ☐ Bai ☐ Ez | |
| **Ezezkoa baldin bada,** adierazi honako hauek: | **Zergak** | **Gizarte-kotizazioak** |
| a) Zer herrialde den? | a) [...] | a) [...] |
| b) Zenbatekoa da? | b) [...] | b) [...] |
| c) Arau-hauste hori, azkenean, nola geratu da jasota? | | |
| 1) Administrazio-ebazpenaren edo ebazpen judizialaren bidez: | c1) ☐ Bai ☐ Ez | c1) ☐ Bai ☐ Ez |
| - Ebazpen irmoa eta loteslea al da? | - ☐ Bai ☐ Ez | - ☐ Bai ☐ Ez |
| - Idatzi kondenaren edo ebazpenaren data. | - [...] | - [...] |
| - **Kondena baldin bada, eta kondenan ezarrita baldin badago**, baztertze-epearen iraupena. | - [...] | - [...] |
| 2) Beste bide batzuen bidez. Zehaztu. | c2) [...] | c2) [...] |
| d) Zergak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta, hala dagokionean, sortutako interesak eta ezarritako isunak ordaintzeari dagokionez, operadore ekonomikoak bete al ditu ordainketa-betebeharrak, ordainketaren bidez edo akordio loteslearen bidez? | d) ☐ Bai ☐ Ez<br>**Baiezkoa bada,** zehaztu:<br>[...] | d) ☐ Bai ☐ Ez<br>**Baiezkoa bada,** zehaztu:<br>[...] |

[24] Ondore horietarako, SPKLren 71.1. artikuluko a) letraren arabera, hauxe da kontratatzeko debekua: «*Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak (...)»;eta zenbaki bereko d) letran ezarrita dago honako egoera honetan daudenek ere kontratatzeko debekua dutela: «zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak betetzeko betebeharrak indarreko xedapenetan ezarritakoarekin bat bete ez izana»; horrez gain, hauxe dio zenbaki bereko f) letrak: «administrazio-zehapena bidez kontratatzeko debekua izatea, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin, edo Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat etorrita (38/2003 Legea azaroaren 17koa da, eta 58/2003 Legea abenduaren 17koa)»*.

| | |
|---|---|
| Zergen eta gizarte segurantzako kotizazioen ordainketari buruzko dokumentuak formatu elektronikoan baldin badaude, zehaztu: | (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza)[25]:<br>[…] […] […] […] |

[25] *Errepikatu, behar den guztietan*.

## C: KAUDIMENIK EZARI, INTERES-GATAZKEI EDO HUTSEGITE PROFESIONALEI BURUZKO ZIOAK [26]

| **Kaudimena, interes-gatazka edo falta profesional guztiei lotutako informazioa** | **Erantzuna** |
|---|---|
| **Zure uste eta jakituriaren arabera,** operadore ekonomikoak bete al ditu lan-, **gizarte- eta ingurumen-arloetako legeetan** ezarritako **betebeharrak** [27]? | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>**Baiezkoa baldin bada,** operadore ekonomikoak neurriak hartu al ditu sinesgarritasuna erakusteko, baztertzeko zio egokia egon arren (autozuzenketa)?<br><br>☐ Bai ☐ Ez<br><br>**Neurriak hartu baldin baditu,** adierazi zeintzuk izan diren: [...] |
| Operadore ekonomikoa honako egoera hauetako batean dagoen [28]:<br><br>**a)** Porrota<br><br>b) Kaudimenik eza edo likidazioa kudeatzeko prozeduraren mende<br><br>c) Hitzarmena egin du hartzekodunekin<br><br>d) Antzeko ezaugarriak dituen eta lege- eta arau-xedapen nazionaletan indarrean dagoen prozedura bati lotutako egoera batean dago<br><br>e) Antzeko ezaugarriak dituen eta lege- | ☐ Bai ☐ Ez |

[26] *Ikus 2014/24/EB Zuzentarauaren 57. artikuluko 4. zenbakia. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da baztertze- zio hauek lege nazionalen arabera ulertu behar direla, kasu zehatz bakoitzean adieraziko den bezala*.

[27] *Kontratazio honen ondorioetarako, lege nazionaletan, dagokion iragarkian, kontratazio-agirietan edo 2014/24/EB Zuzentarauaren 18. artikuluko 2. zenbakian jasota dagoen bezala.*

*Ondore horietarako, SPKLren 71. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarrita dago honako delitu hauek egiteagatik epai irmoa jaso duten pertsonek kontratatzeko debekua dutela*:

a) *lan- edo gizarte-arloko arau-hauste oso astuna, Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoarekin bat etorrita (5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, abuztuaren 4koak, onartzen du testu bategina); edo testu bereko 22.2 artikuluan azaltzen den arau-hauste astuna*.

b) Arau-hauste oso larria ingurumen-arloan, indarreko araudian ezarrita dagoenaren arabera. Eta SPKLren 71.1. artikuluko d) letran, honako debeku hauek ezarrita daude kontratatzeko: "(...) 50 edo langile gehiago duten enpresak izanik, langileen % 2k desgaitasunen bat duten pertsonak izateko eskakizuna ez betetzea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren (desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena) 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, arau bidez ezartzen diren baldintzetan".

[28] Ikusi estatuko legeria. Ondore horietarako, SPKLren 71.1. artikuluko c) letrak aipatzen du kontratatzea debekatzeko arrazoia dela honako hau: "Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratua izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratuta egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu edo ordainketetarako akordio estrajudizial bat hasi bada), esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik".

| | |
|---|---|
| eta arau-xedapen nazionaletan indarrean dagoen prozedura bati lotutako egoera batean dago<br><br>f) Enpresa-jarduerak bertan behera utzi dira<br><br>**Erantzuna baiezkoa bada**:<br><br>- Zehaztu:<br><br>- Inguruabar horietan jarduera egiten jarraitu ahal izateko, aplika daitezkeen xedapen eta neurri nazionaletan zer ezarrita dagoen kontuan hartuta, adierazi, horrela izanda ere, operadore ekonomikoak zergatik jarraitu ahal duen kontratua gauzatzen?[29](zioak)<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | - [...]<br><br>- [...]<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[...] [...] [...] [...] |
| Operadore ekonomikoa **falta profesional astun** baten erruduntzat jo dute?[30]<br><br>Baiezkoa baldin bada, zehaztu: | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>[...] |
| | **Baiezkoa baldin bada**, neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak?<br><br>☐ Bai ☐ Ez<br><br>**Neurriak hartu baldin baditu**, adierazi zeintzuk izan diren:<br><br>[...] |
| Operadore ekonomikoak, beste eragile ekonomiko batzuekin batera, erabakiak hartu al ditu **lehia faltsutzeko** [31]?<br><br>**Baiezkoa baldin bada**, zehaztu: | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>[...]<br><br>**Baiezkoa baldin bada**, neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak? |

[29] *Informazio hori ez da eman behar, baldin eta operadore ekonomikoa baztertzeko zioa a) letratik f) letrara jaso diren kasuetako bat bada, eta legeria nazionalaren arabera nahitaezkoa baldin bada. Horretan,* ***ezin da salbuespenik egin****, operadore ekonomikoa kontratua gauzatzeko baldintzetan egonda ere. SPKLren 71. artikuluko 1. zenbakiko c) letran ezarritakoa bete beharko da*.

[30] *Hala dagokionean, ikus legeria nazionalean jasotako definizioak, iragarki egokia edo kontratazio-agiriak. Puntu horretan, SPKLTBren 60. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritakoa bete beharko da. Zehazki, honako debeku hau ezarrita dago SPKLTBren 3. artikuluan zehaztuta dauden erakundeekin kontratuak egiteari buruz: «lanbide-arloan arau-hauste astuna egiteagatik, zehapen irmoa jaso izana, (...)»*

[31] Estatuko legerian xedatutakoaren arabera. Puntu honetan, SPKLren 71.1. artikuluko b) letran esandakoa beteko da; eta horren arabera, kontratatzea debekatzeko arrazoia izango da “Zehapen irmoa jaso izana arau-hauste larria egiteagatik (…) arloan, eskumena faltsutzeagatik”.

| | |
|---|---|
| | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>**Neurriak hartu baldin baditu**, adierazi zeintzuk izan diren:<br><br>[...] |
| Operadore ekonomikoak al daki interes-gatazkarik sortu den berak kontratazio-prozeduran parte hartzeagatik [32]<br><br>**Baiezkoa baldin bada**, zehaztu: | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>[...] |
| Operadore ekonomikoak edo berarekin lotuta dagoen enpresa batek botere edo esleitzaileari **aholkatu ahal dio edo beste era batez parte hartu du** kontratazio-prozeduran [33]?<br><br>**Baiezkoa baldin bada**, zehaztu: | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>[...] |
| Operadore ekonomikoak aurreko kontratu publiko baten, erakunde esleitzailearekin sinatutako kontratu baten edo lagapen-kontratu bat **aldez aurretik azkendu** du? Edo, aurreko kontratu horrekin lotuta, kalte-galeren ordainketa edo antzeko zehapenen bat jarri al diote?[34] | ☐ Bai ☐ Ez |

[32] SPKLren 71.1. artikuluko g) letrak ezartzen du kontratatzea debekatzeko arrazoia dela "pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren ordezkariak honako lege hauetan jasotako kasuren batean egotea: martxoaren 30eko 3/2015 Legean (Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena) edo autonomia-erkidegoek dituzten arlo horri buruzko legeetan; edo abenduaren 26ko 53/1984 Legean (Administrazio Publikoetako Langileen Bateraezintasunei buruzkoa); edo ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan (Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoa) arautaturako kargu hautetsiak izatea, lege horretan ezarritako baldintzetan". Aurreko paragrafoan aipatzen diren langileek eta goi-kargudunek edo administrazio horien zerbitzura diharduten hautetsiek pertsona juridiko baten kapitalean parte hartzen badute, aipatutako legerian zehaztutako moduan eta zenbatekoekin, pertsona juridiko hori ere debekuaren barruan sartuko da. Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetza afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaideak ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada kontratazio-organoaren titularrarekin edo kontratatzeko ahalmena delegatuta duten organoetako titularrekin edo kontratazio-organoaren titularraren ordezkoekin". Halaber, h) letrak dio hauek ere badirela kontratatzea debekatzeko arrazoiak: "Kargu bat utzi ondorengo bi urteetan karguaren eskumenekin zuzenean erlazionatutako enpresa edo sozietate pribatuetan zerbitzuak eman dituzten pertsonak kontratatu izana, eta pertsona horiek Gobernuko kideen eta Estatuaren Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen (Gobernuko kideak eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena) 15.1. artikuluan edo autonomia-erkidegoetako arauetan aipatutako ez-betetzean erori izana eta hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu izana. Kontratatutako pertsona enpresako antolaketan dagoen bitartean iraungo du kontratatzeko debekuak, eta, gehienez ere, bi urtez, goi-kargua uzten duenetik aurrera".

[33] Ikusi SPKLren 70.1. artikulua ("Bateragarritasun-baldintza bereziak").

[34] *SPKLren 71. artikuluko 2. zenbakiko c) letran honako debeku hau ezarrita dago kontratatzeko: «118. artikuluaren arabera kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak bete ez badituzte, eta, ez-betetze hori, pleguetan edo kontratuan, arau-hauste astuntzat jotzen bada lege hau garatzeko xedapenen arabera, eta tartean enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan bada, eta, betiere, zigorrak edo kalte-galeren ordainketa ezarri behar izan badira. Halaber, zenbaki bereko d) letran hauxe ezarrita dago "lege honetan azalduta dauden erakundeetako batekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin badute, suntsiarazpen-kausa horren errudun jo dituztelarik"*.

| | |
|---|---|
| **Baiezkoa bada**, zehaztu: | [...] |
| | **Baiezkoa baldin bada**, neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak?<br><br>☐ Bai ☐ Ez<br>**Neurriak hartu baldin baditu**, adierazi zeintzuk izan diren: |
| Operadore ekonomikoak hauxe berretsi al du?: | |
| a) baztertze-ziorik ez dagoen edo hautaketa- irizpideak bete dituen zehazteko xedez eman dituen datuetan ez duela faltsutze astunik egin [35], | ☐ Bai ☐ Ez |
| b) ez dituela horri buruzko datuak ezkutatu, | ☐ Bai ☐ Ez |
| c) atzerapenik gabe aurkeztu dituela botere edo erakunde esleitzaileak eskatu dituen ziurtagiriak; eta | ☐ Bai ☐ Ez |
| d) ez dela saiatu honako hauek egiten: botere edo erakunde esleitzailearen erabakiak hartzeko prozeduran eragina izaten; kontratazio-prozeduran bidegabeak diren abantailak eskuratzeko datu konfidentzialak lortzen; baztertzeko, hautatzeko edo esleitzeko erabakietan eragin garrantzitsua izan dezakeen informazioa zabarkeriaz ematen[36]? | ☐ Bai ☐ Ez |

[35] SPKLren 71.1. artikuluko e) letran ezarrita dago kontratatzea debekatuko zaiela hauei: “140. artikuluan (SPKL) aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean edo gaitasunari eta kaudimenari buruzko aitorpenean datu faltsuak eman dituztenei, edo, bestela, 82.4. artikuluan aipatutako informazioa (sailkapen-arlokoa) eta 343.1. artikuluan ageri dena (lizitatzaileei eta enpresa sailkatuei buruzkoa) komunikatzeko betebeharra bete ez dutenei, kausak egotzi ahal zaizkienean”. Gainera, 71.2. artikuluko a) eta b) letren arabera, ezingo da kontratatu honako kasu hauetan: “Esleitzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute, edo kontratua beren alde esleitzea eragotzi badute 151.2. artikuluan ezarritakoa epearen barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio” eta *“Esleitu zaion kontratua formalizatu ez izana, 153. artikuluan jasotako epeetan, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik”*.

[36] *Ikus SPKLren 71. artikuluko 1. zenbakiko e) letran kontratatzeko zer debeku ezartzen den.*

## D: BOTERE EDO ERAKUNDE ESLEITZAILEAREN ESTATU KIDEKO LEGERIA NAZIONALEAN EZARRITA EGON DAITEZKEEN BESTE ESKLUSIO-ZIO BATZUK

| Baztertze-zio nazional hutsak | Erantzuna |
|---|---|
| **Nazional hutsak** diren baztertze-zioak, iragarki egokian edo kontratazio-agirietan zehaztuta daudenak, aplikagarriak al dira [37]?<br><br>Adierazi iragarki egokian edo dokumentuetan eskatzen den dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[…] […] […] […][38] |
| **Baztertze-zio nazional huts guztiak aplikagarriak baldin badira,** neurri autozuzentzaileak hartu al ditu operadore ekonomikoak?<br><br>**Baiezkoa baldin bada**, adierazi zeintzuk izan diren:: | ☐ Bai ☐ Ez<br><br>[…] |

[37] *SPKLren 71. artikuluko 1. zenbakiko f) letran kontratatzeko debeku hau ezarrita dago: administrazio-zehapen baten bitartez ezarritako kontratatzeko debeku baten eraginpean badaude, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean edo Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.*
[38] *Errepikatu, behar den guztietan.*

## IV. ZATIA: Hautaketa-irizpideak[39]

Hautaketa-irizpideei dagokienez (zati honen α atala edo A-D bitarteko atalak), operadore ekonomikoak hauxe adierazten du:

### α: HAUTAKETA-IRIZPIDE GUZTIEI BURUZKO ADIERAZPEN GLOBALA

**Operadore ekonomikoak lauki hau bete behar du soilik lizitazio-iragarkian edo kontratuaren klausula espezifikoen 25. klausulan hala adierazi bada. Hautaketa-irizpideak horiek kontratuaren klausula espezifikoen 21. klausulan azaltzen dira.**

| **Hautaketa-irizpide guztiak betetze** | **Erantzuna** |
|---|---|
| Hautaketa-irizpide guztiak betetzea | ☐ Bai ☐ Ez |

### A: EGOKITASUNA

**Operadore ekonomikoak informazio hau eman beharko du baldin eta lizitazio-iragarkian eta kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulan ezarrita badago hautaketa-irizpideak bete egin behar direla.**

| **Egokitasuna** | **Erantzuna** |
|---|---|
| 1) **Merkataritzako edo lanbideko erregistro batean inskribatuta dago**, eratuta dagoen estatu kidean[40]:<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | [...]<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[...] [...] [...] [...] |
| **2) Zerbitzu-kontratua baldin bada:**<br><br>Beharrezkoa al da **berariazko baimena edukitzea edo erakunde zehatz bateko kide izatea** dagokion zerbitzua operadore ekonomikoa ezarrita dagoen herrialdean egin ahal izateko?<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan | ☐ Bai ☐ Ez<br>**Baiezkoa baldin bada,** adierazi zehatz- mehatz zer baimen edo kidetasun den, eta zehaztu operadore ekonomikoak eskakizun hori betetzen duen:<br>[......................................................] |

[39] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22. klausulako 1.-4. apartatuak.
[40] *2014/24/EB Zuzentarauaren XI. eranskinean jasota dagoen bezala,baliteke estatu kide jakin batzuetako operadore ekonomikoek eranskineko beste eskakizun batzuk bete behar izatea*.

| | |
|---|---|
| eskuragarri baldin badago, adierazi: | (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[…] […] […] […] |

## B: EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA

**Operadore ekonomikoak informazio hau eman beharko du baldin eta lizitazio-iragarkian eta kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausulan ezarrita badago hautaketa-irizpide horiek (kaudimenari buruzko betekizunak) bete egin behar direla.**

| **Ekonomia- eta finantza-kaudimena** | **Erantzuna** |
|---|---|
| 1a) Hauxe da dagokion iragarkian edo kontratazio-agirietan ezarrita dauden ekitaldien kopuruan osatu den **urteko negozioen bolumena** (orokorrean):<br><br>Edota<br><br>1b) Hauxe da dagokion iragarkian edo kontratazio-agirietan ezarrita dauden ekitaldien kopuruan osatu den urteko negozioen batez besteko bolumena (orokorrean) [41]:<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..]moneta<br><br>Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..]moneta<br><br>Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..]moneta<br><br>(ekitaldien kopurua, negozioen batez besteko bolumena): […], […] […]moneta<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[…] […] […] […] |
| 2a) Hauxe da eskatutako ekitaldi-kopuruan (lizitazio-iragarkian edo kontratazio-agirietan ezarrita dago) **kontratuko jardueraren arloan** osatu den **urteko negozioen bolumena** (zehatza<br>Edota | Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..]moneta<br>Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..]moneta<br>Ekitaldia: […] negozioen bolumena: […][..]moneta |

[41] Iragarkiaren edo kontratazio-pleguen arabera baimenduta baldin badago, bestela ez (ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula).

| | |
|---|---|
| 2b) Hauxe da **jarduераren arloan eta eskatutako ekitaldi-kopuruan (lizitazio-iragarkian edo kontratazio-agirietan ezarrita dago) osatu den urteko negozioen** batez besteko **bolumena** [42]:<br><br>Dokumentazio egokia formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | (ekitaldien kopurua, negozioen batez besteko bolumena): [...], [...] [...]moneta<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[...] [...] [...] [...] |
| 3) Ekitaldi-kopuru horretako negozioen bolumenaren gaineko datuak (kopuru zehatzari edo orokorrari lotutakoak) eskuragarriak ez badaude, adierazi enpresa zer egunetan sortu zen edo operadore ekonomikoak noiz ekin zion jarduerak egiteari: | [...] |
| 4) Iragarkian edo kontratazio-agirietan zehazten diren **finantza-ratioei** [43] dagokienez, operadore ekonomikoak adierazten du hauxe dela eskatutako ratioen (edo ratioaren) benetako balioa:<br><br>Informazio hori formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | balioaren eskatutako ratioa (x eta y arteko ratioa [(44]:<br><br>[...], [...][45]<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[...] [...] [...] [...] |
| 5) Hauxe da operadore ekonomikoaren **lan-istripuekin lotutako kalte-galeren asegurua**:<br><br>Informazio hori formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi | [...][...]moneta<br><br>(web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[...] [...] [...] [...] |
| 6) Iragarkian edo, hala dagokionean, kontratazio-agirietan zehaztuta dauden | [...] |

[42] Iragarkiaren edo kontratazio-pleguen arabera baimenduta baldin badago, bestela ez (ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula).
[43] *Adibidez, aktiboaren eta pasiboaren arteko ratioa*.
[44] *Adibidez, aktiboaren eta pasiboaren arteko ratioa*.
[45] *Errepikatu, behar den guztietan*.

| | |
|---|---|
| ekonomiarekin edo finantzekin lotutako gainerako eskakizunei buruz hauxe adierazten du operadore ekonomikoak:<br><br>Iragarki egokian edo dokumentuetan eskatzen den dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | (web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza):<br>[…] […] […] […] |

## C: GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

| |
|---|
| **Operadore ekonomikoak informazio hau eman beharko du baldin eta lizitazio-iragarkian eta kontratuaren klausula espezifikoen 22.2 klausulan ezarrita badago hautaketa-irizpide horiek (kaudimenari buruzko betekizunak) bete egin behar direla.** |

| Gaitasun teknikoa eta profesionala | Erantzuna |
|---|---|
| 1a) **Obra**-kontratu publikoak direnean, bestela ez:<br><br>Erreferentzia-aldian [46], mota horretako honako obra hauek egin ditu operadore ekonomikoak:<br><br>Obra garrantzitsuenak gauzatzeko eta amaitzeko dokumentazioa formatu elektronikoan eskuragarri baldin badago, adierazi: | Urte-kopurua (aldi hori iragarki egokian edo kontratazio-agirietan zehaztuta dago [47]):<br><br>Obrak:<br><br>web-orriaren helbidea, erakunde edo agintari igortzailea eta dokumentazioaren erreferentzia zehatza): |
| 1b) Erreferentzia-aldian [48], operadore ekonomikoak egin ditu **zehaztu den motako entrega hauek eta zehaztu den motako zerbitzu hauek**:<br><br>Zerrenda egitean, adierazi zenbatekoak, hartzaile publikoak edo hartzaile pribatuak [49]: | Urte-kopurua (aldi hori iragarki egokian edo kontratazio-agirietan [50]) zehaztuta dago:<br><br>[…]<br><br>Azalpena / Zenbatekoak / Datak / Hartzaileak |
| 2) Honako **teknikari edo erakunde tekniko** [51] hauek (kalitate-arduradunak, bereziki) balia ditzake:<br><br>Obra-kontratu publikoak direnean, operadore ekonomikoa honako teknikari edo erakunde | […] |

[46] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula.
[47] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula.
[48] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula.
[49] *Bestela esanda, hartzaile guztiak zerrendatu behar dira, eta zerrendan hornigaien edo zerbitzuen bezero publikoak zein pribatuak sartu behar dira*.
[50] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 22.2. klausula.
[51] *Operadore ekonomikoko teknikariak edo erakunde teknikoak beraren enpresan bertan sartuta ez badaude, baina operadore ekonomikoa haien gaitasunean oinarritzen baldin bada, II. zatiko C atalean azalduta dagoen bezala, EKAB formularioak bete behar dira, bereizita*.

| | |
|---|---|
| tekniko hauez balia daiteke, obra egiteko: | […] |
| 3) **Kalitatea bermatzeko, honako instalazio tekniko eta neurri hauek erabiltzen ditu,** eta **azterlanak eta ikerketak egiteko honako baliabide hauek ditu:** | […] |
| 4) **Hornikuntza-katea kudeatzeko** sistema hauek erabili ahal ditu: | […] |
| 5) **Hornitu behar diren produktuak edo zerbitzuak konplexuak direnean, edo, salbuespen gisa,** xede zehatz bat lortzeko **behar diren produktuak edo zerbitzuak direnean**:<br><br>Operadore ekonomikoak baimena emango du beraren **produkzio-gaitasuna**, **gaitasun teknikoa** eta, hala dagokionean, beraren **ikerketa-baliabideak** eta aplikatuko dituen **kalitatearen kontrolerako neurriak** egiaztatzeko[52]? | ☐ Bai ☐ Ez |
